

...eta!  
**K**ittoa!

2017-XI-3

1033 zkia.



# Olatuek markatutako *Txintxe surfalaria* bidetik

**EUKi**  
ASEGURUAK

**AURREZTU ZURE ASEGURUAN  
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!**



**AUTO ASEGURUA**  
MOTORRA EDO FURGONETA  
... BAITA QUAD-A,  
AUTOKARABANA, KAMIOIA,  
BURU TRAKTOREA,  
AUTOBUSA, ATOIAK...

**AUTO  
ASEGURU  
ESKAITZA**

Informazio gehiago: [eukiseguros.com](http://eukiseguros.com)

# + osasun gida

## Dentistak

**arat**  
Hortz Klinikak

943 20 18 51  
info@clinicadentalarat.com  
www.clinicadentalarat.com

Toribio Etxebarria, 4 - 1ºesk

*Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura.*

**UniverSalud**  
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.  
20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.

**bista eder**  
clinica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19  
www.bistaeder.es

**EIBAR** HORTZ KLINIKAK  
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**  
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

**hortz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

**IRAZABAL**  
clínica dental

Iribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicalrazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
ZURIARRAIN ODONTOLOGOAK

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

**Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896**

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

**VITALDENT**  
*Konpromisoa*

San Juan, 7  
943 821 885 - 690 628 731  
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa

**NATUR HOUSE**

Ainara Iriando Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOAK**

**KIRURGIA ESTETIKOAK**

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapeutak

**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20  
Tf. 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**

## Ginekologia

**M<sup>a</sup> Jose Ruiz de Porres**  
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

**T. Etxebarria, 4 - 1. esk. 943 20 28 57**  
**94 444 95 34**

## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

Isasi, 17 - 1. esk. 943 202691  
ahotslan@gmail.com

**Diagnostikoa eta tratamendua**

**Degluizio atipikoa**  
Disfonia  
Ikaste-arazoak

**Arreta arazoak**  
Berba arazoak  
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN



**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Ander Alberdi

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# Eskutitzak

– Enpresetan hitzarmenak sinatzen jarraitzen dugu –

ELA sindikatuak hitzarmenak sinatzen jarraitzen du, lan-erreforma saihesteko eta lan-baldintzak hobetzeko, bai batzordedun enpresetan, bai Enpresa Txiki eta Ertainetan (ETEetan). Berritoki ikusi dugu antolakuntzaren garrantzia, langileentzako hitzarmen mamitsuak lortzeko orduan. Oñatiko Hijos de Juan de Garay enpresaren hitzarmena argitaratu da eta, horrekin batera, Deba eskualdeko beste hiru ETEren hitzarmenak ere sinatu dira.

– Garay (Oñati):

- 3 urteko indarraldia.  
- Soldata-igoera: KPI + 0,3 urte bakoitzean, eta gutxienez % 1,9 bermaturik.

- Errelebo-kontratua bultzatu da, betekizunak biltzen dituen langile guztiei eskainiz eta errelebo-hartzaileei kontratu mugagabeak eginez.

- Lan-erreformatik blindatzea. Hitzarmena salbuestearen aurkako klausula, aurrera-eragin mugagabea, mutualitateen kudeaketa kentzea, eta abar.

– Acha Herramientas (Eibar):

- Indarraldia 2019/12/31ra arte. Aurrera-eragin mugagabea.

- Igoerak: 2017an %2, 2018an KPI, 2019an KPI.

- Hitzarmena salbuestearen aurkako klausula, eta hitzarmena nabarmen aldatzearen aurkako klausula. Aldi baterako ezintasunaren osagarriak hobetu.

– Electricidad Guria (Eibar):

- Indarraldia 2019/12/31ra arte. Aurrera-eragin mugagabea.

- Igoerak: 2017an %2,6, 2018an KPI+1, 2019an KPI.

- Hitzarmena salbuestearen aurkako klausula, eta hitzarmena nabarmen aldatzearen aurkako klausula.

– Urkunde (Mendaro):

- Indarraldia: 2017/12/31ra arte. Aurrera-eragina 2019/06/01era arte.

- Soldata-igoera: KPI+1.

- Hitzarmena salbuestearen aurkako klausula, eta hitzarmena nabarmen aldatzearen aurkako klausula. Aldi baterako ezintasunaren osagarriak hobetu.

Amagoia Lasagabaster  
(ELAKO Debako Eskualde arduraduna)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LUZEKIZUN.**- Luzamendua. “Zorrak erantzutzeko orduan, beti dittu harek luzekizunak”.

**LUZERO.**- Luzaro, denbora asko. “Osatzen zanian, ez eban izaten luzero etxian sosegatzerik”.

**LUZERUAN.**- Luzarotan, denbora askoan. “Luzeruan itxain eben baiña ez zan zaratarik”.

## astean esanak

“Barruan dudan susmo oraindik irrazional bat baieztatu zidaten lehengo egunean. Gizon batekin lehenengo zita edukitzean, etxerako bidean gainetik kendu ezinezko ideia batekin bueltaka ibiltzen garela: gu elkarrizketatzaile eta mutila lanposturako hautagai bakarra izango balitz moduan. Sinestuta nengoen neure burua babesteko jokatzen nuela horrela, baina ez naiz bakarra. Muinera heltzeko gai garela frogatu behar dugun elkarrizketatzaile bikainak bilakatzen gara. Harremanak parekideak ez direnean”

(MIKELE LANDA, ZUTABEGILEA)

“Metodo zientifikoen bidezko datuen analisisiek ez dute inoiz %100eko ziurtasuna islatuko; beraz, gertaeren analisisian zientzialariek patxadaz egin badezakete lan ahalik eta emaitzarik errealistenak lortzeko, gizarteak hipotesirik txarra ekiditeko ahalegina egin behar du hasieratik, nahiz eta askotan hori ez bete. Giza sena historian mamitutako jakinduria den neurrian, kasu egin behar diogula uste dut, hau da, bihotzak agintzen duenari kasu egin behar diogu, batez ere buruak informazioa prozesatzen denbora luzeegia behar izaten duenean: milaka urte, esaterako, astronomia mailan”

(JOXERRA AIZPURUA, INDUSTRIA INGENIARIA)

“CAF zuzenduko banu, nire aukera ez litzateke Talgorekin ezkontzea. Nire irizpideen arabera bakidea bilatuko nuke aurrera. Munduan merkatuan dago CAF, eta agian beste kontinente bateko bazkide bat komeni zaio, eta ez hainbeste estatu baten itzala bezeroak lortzeko. Talgok, oraindik, familia izaera dauka, eta CAFen langileak dira akziodun nagusiak. Ez dira gauza bera, eta non kokatuko litzateke botere guinea? Irizar eta CAF, elkarren aurka behitzen aritea munduan? Kanibalismoa ez da hauspotu behar; hor, Kain eta Abel... Adimentsuagoa da elkarri sendotzeko estrategia partekatua garatzea”

(BURT KAMP, IKERLARIA)



ASIER EZENARRO

## Gezurrak eta lelokeriak

Carlos Carrizosa Ciudadans alderdi politikoaen bozeramaileak Catalunya legebiltzarrean hitz hauek esan zituen aurreko barixakuko osoko bilera historikoan: *"Hemos convertido esta España en una de las democracias más limpias de toda Europa"*. Zer da hori, gezurra ala lelokeria? Gogoratzen dudun baikoitzean barre egiteko gogoia etortzen zait. Ikusi dugunaren ondotik, Carrizosak esaten digu Espainia "demokrazia garbia" dela. Bai. Simaurtegi bat bezain garbia. Ustelkeriaren Espainian badaude aurpegi gogorra duten politikoak hori adierazteko. Azken aldian entzun diet politikari espainolei (PP, PSOE eta Ciudadanosekoei) ere euskal abertzaleak eta Catalunya abertzaleak totalitarioak garela eta ez diegula euren lagatzen bere identitatea garatzen. Zenbat bider entzun dut (nire ingurunean ere) eurak, konstituzionalistak, "euskaldunak eta espainolak" direla, edo "katalanak eta espainolak". Nik froga bat egitera gonbidatzen zaituztet: galdetu munduan zehar edozein lekutako lagunei zein den euren nazionalitatea, euren identitate nazionala eta ea zenbatek erantzuten duten "Ni argentinarra eta brasildarra naiz", edo "frantsesa eta alemana": inork ez, noski. Gizakiok identitate nazional **bakarra** dugulako. Eta politikari espainolek, aireportuetan, atzerrian, oporretan, noski, ez dute erantzuten "*vasco y español*" edo "*catalán y español*", espainola bakarrik baizik. Azken aldian ere ikusi ditut facebooken, beste lelokeri haundi bat: lur planetaren irudi bat ikusten da, urdina eta ederra, eta azpian hau jartzen du: "Espaziotik ez dira mugak ikusten". Abertzaleen aurka erabiltzen dira horrelako lelokeriak, eta horrelako adierazpenak egiten dituenak ez du, ziur, bere estatuaren mugak zalantzan jartzen, horrek beste herriak isilaraztera eramaten badu ere.

## Ipuruako komentuan "Etxe-on" aterpetxia zabaltziaren alde segitzen dau Irabazik

Ipuruan, San Pio X.a eliza zaharra eta komentua dagozen lurak "Etxe-on" aterpetxia zabaltzeko erabiltziaren aldeko ideari eutsiko detsa Irabazik, koaliziño horretako udal ordezkari Maria Jesus Agirrek esan dabenez: *"Udal-gobernuak Kontzepzionisten komentua eta inguruko ortuak erostia erabagi dau, kirol-ekipamenduak jartzeko asmuarekin, baiña, zuzenketa bat tartian, koaliziñuarekin udal-aterpetxia han eraikitzeko konpromisua hartuta zekan aurrekontuetan"*. Gauzak holan, koaliziñuak berriari eutsiko detsala iragarri dau: *"Ez detsagu uko egingo gure ustez eskualderako bihar-biharrezkua dan proiektuari eta lehenbailehen martxan jartzeko ahal dogun guztia egingo dogu"*. 2017ko aurrekontuetan zuzenketa egiteko proposamenetan biharrian eguzela, Irabazik etxerik ez dakenendako aterpetxe bat sortzeko proiektua egittia *"oso premiñazkua"* zala ikusi eban eta, gaiñera, Eibar eskualdeburu dan aldetik eta 27.400 biztanle izanda, harrera-toki bat izan behar leuke, holan dago jasota araudixan. Agirrek azaldu dabenez, *"Etxe-on aterpetxia egitteko toki hori bereziki aproposa zala begittandu jakun, logelak, jantokixa, harreralekua eta beste zerbitzu batzuk badakazelako eta egoera onian, gaiñera. Inbersiño txixixarekin etxerik ez dakeneri harrera egitteko tokixa eskintzeko aukeria zeguala pentsatzen dogu"*.



asteko  
800.000  
datua

**euro zertan inbertidu aukeratuko dabe herritarrak, udal aurrekontuan parte-hartzeko auzoka egingo diran billeretan. Auzo bakotxerako 50.000 euroko kopuru finkua egongo da eta beste 400.000 eurua auzuan bizi dan jende kopuruaren arabera banatuko dabe.**

## Primerako egunpasa egin eben 1945ian jaixotakuak

Urriaren 26rako egun osorako eskursiñua antolatu eben 1945ian jaixotakuak, egitarau bete-betierekin: goizian Ego-Gaiñen autobusa hartu eta Ibarrara juan ziran, hango merkatura bisita egittera. Hamarretakua be hantxe hartu eben eta, ondoren, eguardixan Tolosara juan ziran, hango TO-



PIC Museua ikustera. Museora bisita amaittu eta gero, pixkatian atsedean hartu eta Izaskuneko ermitara juan zan taldia, *"Maite Narbaiza eta zendu guztiak goguan hartzeko"*. Jarraixan Izaskun jatetxian bazkaldu eben eta, ondoren, oparixen zozketia eta dantzaldixa ailellgau ziran. Handik bueltan kontau dabenez, ederto pasau eben eguna, *"dana zo-ragarri urten zan eta"*.





## 40 urte bete dittuenak zapatuan alkartu ziran

Argazkixan ikusten ditzuzuenak 1977. urtian jaixotakuak dira. Beste urte batzuetan jaixotakuak egitten dabenari jarraituta, honek be Untzagan alkartu ziran taldiaren argazkixa egin eta alkarrekin bazkaltzera juateko. Bixar 1944. urtian jaixotakuak antzerako plana egingo dabe eta azarua amaittu aurretik beste bi "kintada" alkartuko dira gitxienez: 1950ian jaixotakuak azaruaren 18xan alkartuko dira, 13:00ian Untzagan. Izen-emotia azaruaren 14ra arte egongo da zabalik eta jua nahi dabenak 70 euro sartu biharko dittu Laboral Kutxako 3035

0023960231156084 kontuan. Eta 1972. urtian jaixotakuak azaruaren 25ian egingo dabe euren jaixa: 12:00xetan Untzagan batu, lepokuak banatu eta argazkixa egingo dabe. 12:30xetan piskolabisa eukiko dabe Peña Txinberan, 13:30xetan musikarekin lagundutako txikiteua hasiko dabe eta bazkarixa Ipur sagardotegixan izango da, 15:00etan. Eta 18:30xetan dantzaldixa eta traguak eukiko dittue Ez Dok tabernan. Izen-emotia azaruaren 15era arte egin leike, Kutzabankeko ES43 2095 5035 00 9117432046 kontuan 60 euro sartuta.

# autuan

## MANIFESTAZIÑORAKO BUSA

Bixar Bilbon "155.aren kontra. Demokrazia eta Erabakitze Eskubidea" goiburuari jarraituta egingo dan manifestaziñora juateko autobusa antolatuko dabe Eibarren. Ego-Gaiñetik 15:30xetan urtengo da eta izena emoteko Buenos Aires, Guridi, Manuel, Azkena, Beleko, Kultura eta Diana tabernetara jua bihar da.



## ANTZERKI GABA GAZTETXIAN

Gaur gaberako antzerki gaba antolatu dabe Nalua gazte feministen taldekuak, Eibarko gaztetxian: 22:00etan hasiko da "Txabela Bragas" lana antzezten, baiña gaztetxia aurretik, 21:00etan zabalduko dabe.



**Funeraria-Ehortzetxe**  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b>  <b>Funeuskadi Eibar:</b>                  Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b>  <b>SIGMA Industrialdea</b>                  (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>Bulegoa Bidebarrieta, 20</b></p>	
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

## CARMELO VOZMEDIANO GARATE

Urriaren 23an hil zen 55 urterekin

"Zure lagunek ez ditugu inoiz ahaztuko zurekin igarotako une on guztiak"



**AGUR EKITALDIA**  
 gaur, 19:00etan,  
 Txaltxa Zelaian.





TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

## Kantabriara txangua egin eben Pagatxakuak urriaren 25ian



Pagatxa emakumien alkartekuak Santander aldera egunpasa juan ziran urriaren 25ian. Txanguan alkarteko kide askok, 108 andrak hartu eben parte eta ederto ibilli ziran: Santander ezagutzeko bisita gidatua egin eben eta, bestiak beste El Sardinero, farua, katedrala, Botin Museoa eta La Magdalena jauregixa ikusi zittuen. Arratsaldian, barriz, Lierganesen egon ziran.




## Udaleko sail batzuk birrantolatu dittue sozialistak

Udaleko talde sozialistak hainbat aldaketa egin dittu sailletako batzutan, horretako arduria daken ordezkariak kanbixauta. Aste honetan aditzera emon dabenez, "aldaketak azken hilliotan sortzen juan diran antolaketa-premiña barrixerri erantzuteko egin dira eta ez detse eragingo ez udalaren betiko martxari ez kanpoko zein barruko funtzionamenduari". Udal talde guztiak jakiñaren gaiñian ipiñi dittue. Aldaketa nagusiña Ogasun batzorde aholkularixan egindakua da: Zientzia Ekonomikuetan lizentziatua dan Ana Telleria ziñegotzi sozialistak hartuko dau horren arduria, Alberto Albistegi ordezkatuta. Telleriak liberatu egotia gaittik dagokixon lansarixari uko egin detsa. Ardura barrixarekin batera, Informatika saillaren eta Gobernu Irekiaren Ordezkaritzaren arduradun politikua izaten segiduko dau, baiña Hirigintza batzorde aholkularixa-

ren buru izatiari lagako detsa. Berak lagatako batzordeburu kargua Jon Iraolak hartuko dau eta, horrez gain, aurrerantzian bete-betian jardungo dau udalian biharrian, dedikaziño osuarekin, eta Hirigintza eta Ingurumen saillak gidatuko dittu. Eta horrekin batera alkateorde eta Gobernu Batzarraren partaide izendatu dabe. Alberto Albistegik, bestalde, Ogasun batzordia laga daben arren, Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntzako saillaren buru izaten segiduko dau eta, horrekin batera, Kiroletako ordezkari eta Udal Kirol Patronatuko lehendakariorde izendatu dabe. Bestalde, aldaketak dirala eta, esan dabenez, "udal gobernuak dakan krisixa bere barne-antolamendutik haratago doa. Ez da gobernu-krisixa, etenbarik krisixan dagan gobernua baiño".

## Eibarren II. Berakatz Zopa Txapelketia antolatu dau Sarek

Eibarko Sarek antolatuta, iazko azaruari Eibarko I. Berakatz Zopa Txapelketia egin zan, "#Stop Dispersiñua/Ibon etxera" kanpaigniaren barruan eta aurten bigarrenegingo da. Azaruaren 18xan izango da, Untzagan 12:00xetan hasi eta 13:30xetan amaitzeko. Izena emotiak 10 euro balixo dau eta horretarako azken eguna azaruak 16, eguena (20:00etan) izango da. Buenos Aires tabernan karpeta bat ipiñi dabe danen eskura. Hiru onereri sarixa emongo detse (150 euro eta txapelak, 100 euro eta 50 euro). Sari-banaketa amaittu eta gero, zopak Untzagan jango dira, antolatuko daben herri-dastaketan.





## Galiziako Etxekuak Magosto jaixa ospatuko dabe

As Burgas Galiziako Etxekuak, urteroko martxan Magosto jaixa antolatu dabe. Asteburu honetan ospatuko dabe jaixa, zapatu arratsaldian eta domeka eguardixan. Bixar 18:30xetatik aurrera hasiko dira gaztaiña erreak, txorizua eta edarixak saltzen Urkizuko parkian eta domekan, barriz, gauza bera egingo dabe, 11:30xetatik 14:30xetara bittartian (11:30xetatik 12:30xetara umieri duan emongo detsez gaztaiñak). Beste batzuetan bezala, Os Galaicos Galiziako Etxeko taldekuak zuzeneko musikarekin girotuko dabe jaixa.

## Azaruaren 19xan izango dira Bizilagunak bazkarixak

Mugak eta Gipuzkoako Sos Arrazakeriaren eskutik, aurtan be Bizilagunak ekimenaren inguruko bazkarixak egingo dira azaruaren 19xan. Bertakuak eta atzerritik etorritakuak mahai baten bueltan alkarrekin jartzia billatzen dabe ekimenaren arduradunak, holan alkarren arteko lehen kontakturako bidia zabalduta. Ekimenak iaz oso harrera ona euki eban Eibarren eta 35 bat lagun animau ziran parte hartzera. Hori ikusitta, aurtan be geure herrixan bazkarixak antolatzera animau dira. Beste jatorri eta kultura batzuetako jendia ezagutzeko gogua dakan edozeiñek dauka parte hartzeko aukeria, baiña aurretik izena emon biharko dabe, taldiak eta bestelako guztiak antolatu ahal izateko. Informaziño gehixagorako edota izena emoteko [www.mugak.eu](http://www.mugak.eu) web orrira jo leike edo, bestela, 943 32 18 11 telefonora deittu. Eibarren ...eta kitto! Euskara Elkartearen bittartez izena emoteko aukeria be badago, [ongietorri@etakitto.eus](mailto:ongietorri@etakitto.eus) helbidera idatzitta edo 943200918 telefonora deittuta.



## Eibarko Ahal Duguren batzar irekixa eguenian

Datorren asteko eguenian, azaruaren 9xan, Eibarko Podemos Ahal Duguk herritar guztiendako zabalik egongo dan batzarra egingo dau bere egoitzan (Arragueta, 18xan), 18:30xetan. Gipuzkoako Batzar Nagusixetan Podemos Euskadik dittuan bost batzarkidiak (Patricia Gete, Juantxo Iturria, María Valiente, Imanol Gude eta Mónica Mora) eta legebiltzarkidia eta Eibarko idazkari

nagusixa dan Julen Bollain batzarrarian egongo dira.

2018ko aurrekontuak gaiñian, alderdixak erreforma fiskalarekiko bere proposamena aurkezteko asmua daka eta billeran herritarak euren eskakizunak kargueri egitteko aukeria eukiko dabe.



## IÑAKI AZPITARTE GABILONDO

*2017ko urriaren 30ean hil zen, 69 urte zituela.  
Sendiak bihotz-bihotzez eskertzen ditu  
jasotako doluminak  
eta baita hileta elizkizunetara agertu izana ere.*




## AZKARATE TELLERIA'tar FERNANDO

*7. urteurrena: 2010-XI-7*

*"Beti izango zara  
gure bihotzetan"*

ETXEKOAK





## Laktosa

**Zenbat urte igaro dira gure kaleetan eta herriko merkatu plazan, inguruetakoko base-rritarrak euren pitxarrak esnez beteta kaletarrok hornitzera etortzen zirela?** Lehenengo astoarekin, ondoren land rover edo antzeko ibilgailuz. Gaur egun oraindik guztiz ez da desagertu salmenta -harreman hori, baina argi dagoena da sa-soiak aldatuz doazela.

Gaur egun esnea brik-etan enbasatuta eros dezakegu. Baina zer esne mota da? gaingabetua, erdi gaingabetua, omegaz aberastua, laktosa gabea... guztiz desnaturaldutako produktuak. Baina ba al dakigu zer den laktosa eta zergaitik komertzializatzen eta saltzen den hainbeste laktosa gabeko esnea? - Hobe delako osasuna-

rentzat (dio jendeak). Hona hemen laktosari buruzko argibide batzuk: laktosa=glukosa + galaktosa-z osaturiko azukre bat da. Azukre hau liseritzeko zaila da. Laktasa izeneko enzimak, laktosa liseritzen laguntzen digu, baina enzima hau hiru urte besterik ez dauzkagunean sortzen uzten dugu.



Bestalde, gerta daiteke esnek kalte egitea eta aldiz esnekiek (gazta, yogurrak...) ondo egitea. Elikagai hauek egiteko, fermentazio bat jasaten dute eta laktosa, azido laktiko bihurtzen da, gureganatzeko errazagoa dena.

Esne eta esnekirik hartu ezetan kaltziotan aberatsak diren



**jaione yeregi**

TEKNIKARIA DIETETIKA  
ETA NUTRIZIOAN

elikagaiak hartu behar ditugu: zereal osoak, algak, fruitu lehor eta haziak (sesamoa bereziki), orri berdedun berdurak, kukicha eta bancha te-ak, brokolia, aza, azalora, tipula, labroak, arrain batzuk...

Amaitzeko, hausnarketa bat: zein animalia ezagutzen duzu edoskitzaroaren ondoren esnea hartzen jarraitzen duena eta gainera beste espezie bategoa? Zergaitik ote?

## Laztanak eta autoestimua

**Ugaztunak animalia taldekoiak gara. Pertsonok gure kidekoen babesa behar dugu.** Edateko edo jateko beharra daukagun moduan, bizirauteko funtsezkoa den laztan gosea daukagu. Ukitua eta aintzat hartzearen beharrez ari gara. Eric Berneren hitzetan, lazтана, aintzat hartzearen edozein unitate da, beste baten egotea antzematen duen akzio guztia.


Gure laztan dieta intrintsekoki lotuta dago autoestimua eta ongizatearekin. Laztan positiboa, amodioaren oinarritzko transakzioa da. Dieta guztietan bezala, elikagai bakoitzak berezko ezaugarriak ditu, eta laztanen kasuan, hurrengo ezaugarri motak desberdintzen ditugu:

- Igotze bidearen arabera: **laztan fisikoak, berbalak, idatziak eta keinu bidezkoak.**
- Agertzen diren emozioen arabera: sentsazio atseginak eragiten dituzten **positiboak**, eta sentsazio desatseginak eragiten dituzten **negatiboak.**
- Emateko edo jasotzeko balditzen arabera: bizi eta izateagatik direnean, **baldintza gabekoak**, eta nolakotasunagatik eta joaeragatik saritu nahian direnean, **baldintzatuak.**
- Zintzotasunaren arabera: **benetakoak; faltsuak**, lausengatzeko, erasokorrak, ez-

kutuak; eta **desegokiak** edo **kaltegarriak**, ondoeza eragiten dutenak.

Laztan bat adibide gisa hartuz gero, bost ezaugarri mota hauen arabera aztertu ditza-kegu, elikagai baten ezaugarri ezberdinetaz ari bagina moduan. Gauzak horrela, laztan bat **keinuzkoa** (barrea), sentsazio atseginak eragiteagatik **positiboa**, bizi eta izateagatik **baldintza gabekoa**, benetako sentimenduagatik datorrelako **benetakoak** eta ongizatea eragiten duelako **osasuntsua** izan daiteke. Adibide moduan ama batek umeari egiten dion barrea daukagu.

Laztan dietak, elikadura bezala funtzionatzen du. Laztan positibo nahikorik ez daudenean, negatiboak beharrezkoak hartzen dira. Hau da, gaizki elikatzea, ez elikatzea baino hobea da. Printzipio honek, kritikan, indarkerian, umeen atentzio deietan oinarritzen diren erlazio dinamikak azaltzen ditu. Barre bat, laztan negatibo bat izan daiteke lotsa eragiteagatik, baldintzatu izan dai-



**arrate garitaonandia**

PSIKOLOGOA/PSIKOTERAPEUTA

teke jokaera batengatik izateagatik, eta kaltegarria izan daiteke ondoeza eragiteagatik. Gure gizartean Claude Steineren arabera, laztan positiboen dieta eskasa da. "Gose" hau laztanen ekonomiaren ondorioa da. Bost printzipioak ditugu:

1. Laztan bat izanez gero, ez eman.
2. Ez onartu ematen dizkizuten laztanak.
3. Ez eskatu behar dituzun laztanak.
4. Ez ezeztatu nahi ez dituzun laztanak.
5. Ez eman zure buruari laztanak.

Laztan negatiboen handiagotzeak joko psikologikoak eta egiazko intimitatea saihesteko modua eragiten ditu. Pertsona batek modu positiboan printzipio horiek lantzen dituen heinean (laztanak eman, jaso, eskatu, ezeztatu, eta bere buruari eman), hazkuntza pertsonala, garapen pertsonala eta autoestimua handiagotzean aritzen da.



# AZAROAK 2 - 12 JARDUNALDIAK



# ZTB

Zientzia  
Teknologia  
Berrikuntza  
Bergara

ztbergara.eus



Bergarako  
Udala



LABORATORIUM  
BERGARA



ERAKUSKETAK


HITZALDIAK

WOLFRAM ENCOUNTERRA

BARNETEGI TEKNOLOGIKOA

ROBOTIKA TAILERRAK

MAHAI-INGURUA



**HEZKUNTZA  
ESPARRUAN**

**4 SAIO  
bi egunetan**

**Azaroak 11  
zapatua  
16:30 eta 19:00**

**Azaroak 12  
domeka  
16:00 eta 18:30**

**SARRERAK SALGAI:**  
- El Tio Palancas (J. Gisasola)  
- Denetik (Urkizu)  
- Gozoki (Bidebarrieta  
eta Sostoatarren)  
**8 EURO**





**IRUNE JAIO:** Emeak I (aurreko asteko Nepaldarren jaiari aterata).



## NEPALDARREN KULTUR ELKARTEA

### Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Gaur egun 30 bat izango badira ere, 74 nepaldar inguru bizi ziren Eibarren orain dela hiruzpalau urte. Eibarko Udaleko inmigrazio saileko teknikariek animatuta eta lagunduta, 2016. urtean sortu zuten elkarteak. Formalki antolatuta, Eibarren gauza asko egiteko bidea ireki zitzairen, eta euren kultura ezagutzera emateko eta eibartarrekin harreman zuzena izateko jarduerak egiten hasi ziren. Eibarren bizi izan diren nepaldar asko orain Euskal Herriko beste leku batzuetan bizi dira, baina, hala ere, gure herriarekin harreman estua izaten jarraitzen dute. Oso pozik daude eibartarrek egin dieten harrerarekin eta erakunde zein herritarrei euren esker ona adierazi nahi diete.

**Telefonoa:** 629 81 72 99  
**E-maila:** [ascneibar@gmail.com](mailto:ascneibar@gmail.com)  
**Facebook:** @ascneibar  
**Kontaktua:** Gita Dulal

### Ekintza nagusiak

Nepaldarren elkarteak euren ohiturak erakustea helburu duten ekitaldiak antolatzen ditu, eta joan den asteburuan, esate baterako, giro paregabearen ospatu zuten Dashain jaialdia Txaltxa Zelaian. Jai hori nepaldarren jai erlijiosoen artean garrantzitsuena da. Eguerdian hasi eta iluntzera arte musika eta dantza ekitaldiak eskaini zituzten eta Nepalgo janaria eta edariak dastatu ahal izan ziren.



*Ederto ospatu zuten Dashain jai domekan Txaltxa Zelaian egon ziren guztiek.*

## EIBART


### Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

2005. urtean sortu zen EIBART elkarteak, artisau-lanak egiten dituzten eibartar sortzaileen jardunari plataforma bat eskaintzeko asmoz. Elkarteak zabalik dago baldintza horiek betetzen dituzten eta elkartearen antolaketa eta garapenean parte hartu nahi duten pertsona guztientzat.

**Telefonoa:** 615 76 43 37  
**E-maila:** [eibart.artisauak@yahoo.es](mailto:eibart.artisauak@yahoo.es)

### Ekintza nagusiak

EIBARTen jarduera nagusia artisautza-azoken muntaia da. Maiatzean Euskal Jaiko azoka antolatzen dute, Klub Deportiboarekin elkarlanean. Azoka horretan euren lanak erakusteko interesa daukaten eibartar artisau guztiek har dezakete parte, eta baita kanpotik etorritako artisau gonbidatuak ere. EIBARTek antolatzen duen beste jarduera bat gabonetako azoka da. Hori da elkartearen proiektu garrantzitsuena. Hiru aste inguru irauten du, eta Eibarko Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatzen da. Aurten gabonetako azoka Untzagan jarriko dute, abenduaren 15etik urtarrilaren 5era arte, eta 10 artisau izango dira bertan euren lanak saltzen.



Urtetik urtera zabor gehixago sortzen dogula jakin badakigu. Mankomunidiadiak 2016. urtian bildutako datuen arabera, Debabarreneko biztanle bakoitzak urtian 407'94 kilo zabor sortu zittuan batezbeste. Eta Debabarreneko Mankomunidiadiak iaz kudeatutako zabor guztia batuz gero, 29.734 tonako pisua hartuko leukie geure hondakiñak. Horretatik 12.061 tona gaikako bilketa bidez jaso zittuen, 439 tona autokonpostajera juan ziran eta beste 17.233 tonak, barriz, errefusa modura tratau zittuen. Gure zaborra desagertarazia gero eta karuagua da eta, gaiñera, horrenbeste zabor botatzeko toki barik geratzen dihardugu. Gauzak holan, birziklatziak sekula baiño garrantzi gehixago dauka gaur egunian, gutariko askori oindio hori buruan sartzia kostatzen jakon arren.



*Herritarreri ahalik eta erraztasun gehixen emotiarren, kontenedoriak etxetik gertu ipintzen dittue.*

# Birziklapenian jaixuak gara... baiña ASKOZ HOBETO EGIN GEINKE

**E**usko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta birziklapena sustatzen daberen Ecoembes, irabazi asmorik ez dakan erakundiaren eskutik, aurreko barixakuan ailegau jakun herririk herri dabillen "Gurea birziklatzea da" ekimena Eibarrera. Barixaku goizian Untzagan aurkeztu eben ekimenarekin "hondakiñak murriztu, birziklatu eta berrerabiltziari begira hartu bihar dittugun eguneroko ohituren inguruan informaziñua zabaldu eta jendia konzientziatu" nahi dabela azaldu eben antolatzailliak. Horrekin batera, "herritar guztiendako zabalik egitten diran jarduera interaktibo eta ludikuen bittartez, hondakiñak berreskuratzari buruzko helburuak ezagutzera emoten ahalegintzen gara, baita bihar dan moduan birziklatzeko aholku praktikuak be".

Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

sailburuak azpimarratu ebanez, "gaur egun zaborrera botatzen dittugun materixalen zati haundi bat lehengai modura ekoizpen-prozesura itzuli leikez, iñolako problema barik. Horrek berreskuratu eta atzera be



*Birziklatzerako arduan zalantzarik euki ezker, erraz argitzeko aukeria dago mugikorretan be.*

erabiltzen badittugu, hondakiñak ingurumena kontaminatzi saihestiaz gain, horrek fabrikatzeko baliabidiak erauztia be murriztu geinke. Herritarrak horrelakuekin konturatzi nahi dogu". Arriolak gaiñeratu ebanez, beraren ardurapian daguan saillak ekonomixa lineala eta ez-jasangarrixa atzian laga nahi dittu, horren orde ekonomixa zirkularri bida zabaltzeko.

Aurkezpenian emon zittuen datuen arabera, Euskadin, batzbeste, sortzen dittugun ontzi eta plastiko hondakiñen %32 birziklatzen dittugu, baiña hobetu biharra dakagu oindio be, are gehixago kontuan hartzen badogu 2020. urtian porzentaje hori %55ekua izatia helburu modura ezarritta daguala.

Aurreko barixaku eta zapatuan Untzagan martxan egon zan erakusketia eta horren inguruko jarduerak Eibarren baiño lehenago Portugalete, Amurrio, Zarautz eta



Durangon hartu zittuen eta, antolatzaillien arabera, jendiaren harrera oso ona izan da, aittatutako herrixetan martxan egon dan bittartian ekimenak 5.200 lagunetik gora erakarri eban eta.

Jaurlaritzarekin batera ekimena sustatzen dabean Ecoembes irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da eta plastikozko ontzixak, latak, brikak, kartoia eta papela berreskuratuz eta birziklatzeko prozesua kudeatzen dau Espaiña maillan. Erakundiak emondako datuen arabera, 2016xan, 1'3 millioi tona baiño gehixago birziklatu ziran Espaiñian eta, horrerri eskerrak, ingurumenaren mesederako millioi bat tona CO2 gitxiago isuri zan atmosferara edo 7 millioi MWh (700.000 etxebizitzak urtian konsumitzen dabarenaren parekua) aurreztu zan.



Erakusketia zabaldu eta segidan jua ziran bisitan Itzioko ikasle batzuk.

**Edukiontzi grisa abendurako**

Hondakiñen birziklapena herri-tarrendako ahalik eta erosuena izateko asmuarekin, azken urtiotan ahalegin berezixa egitten dihardue edukiontzi eta bestelako baliabidiak herritarren eskura ipintzeko. Eibarren hondakiñak gaika batzeko hainbat edukiontzi dakaguz, herriko kalietan zihar banatuta: edukiontzi horixak (lata, brik eta plastikak jasotzeko), urdiñak (kartoia eta papela batzeko), berdiak (beira edo kristala biltzeko) eta marroiak, hondakin organikuak biltzeko. Horrez gain, arropak, erabilittako olixua eta pilak biltzeko kontenedoriak be badagoz. Aurreratu ebenez, abenduaren 1etik aurrera herriko edukiontzi guztietan organikuak biltzeko edukiontzi marroiak ipiñiko dittue eta, horrekin batera, oin arte errefusa botatzeko erabiltzen dittugun kontenedore berdiak kendu eta, horren tokixan, txip bidez zabalduko diran edukiontzi grisak ipiñiko dittue.



**Urtetik urtera hobetzen**

Debabarreneko Mankomunidadeiak aurtengo otsaillian aurkeztu zittuan datuak eskuan, 2016xan eskualdeko gaikako bilketia %42'02ra ailegau zan, aurreko urtiarekin konparauta 2'4 puntuko igoeria euki eta gero. Bakarrik Eibarko datueri begiratu gero, gure herriko batzbestekuek (%46'57) eskualdekua gaintitzen dabela ikusi geinke. Arcadio Benitez Mankomunidadeko presidentiak zenbakixen inguruan egindako baloraziñua, orohar, positi-

bu da, baiña edozelan be "hobetzeko aukeria badaguala eta, gaiñera, geure esku dakagula" pentsatzen dau. Bere berbetan, "zifrak onak dira, baiña jendia gehixago konzientziatu bihar da Europak finkatutako helburuak lortzeko". Izan be, gure herrixari oindio be 3'5 puntu falta jakoz 2020. urterako finkatu zan %50eko helburura ailegatzeko. Halanda be, azken bost urtiotan Debabarrenian aurrerapauso haundixak emon dirala argi erakusten dabe zenbakixak: 2012. urtian gaikako bilketia %22 inguruan eguan eta iaz, barriz, %42 baiño zeozer gorago egotera ailegau zan. Hortaz, bost urtian bikoiztu egin da birziklatzen dittugun hondakiñen kopurua.

Mankomunidadeiak dittuan helburu nagusixak biohondakiñen eta ontzixen bilketarritmua azkartzia eta errefusaren murrizketia sustatzia dira. Eta asmo horrekin zabalduko dabe urtia amaittu baiño lehen kontenedore grisa eskualdeko herri guztietara, "holan, errefusa jasotzeko kontenedorian, birziklatu ezin leikiazen materialak baiño ez botatzeko".

Herrittarrak dittuan zalantzak argitzeko asmuarekin, etxietara banatzeko gida emon eban argittara uda baiño lehen eta, horrekin batera, mugikorrerako aplikaziñua be sortu dabe, "nahi dabena oso modu erreze eta erosuan informaziñua jasotzeko aukeria izateko eta, sortu ahal diran zalantzak ahalik eta azkarren erantzun ahal izateko". Aplikaziñuan, bestiak beste, era guztietako materialak biltzen dittuan zerrenda dago eta, nahi dan berbia aukeratu gero, hori nora bota bihar dan momentuan ikusi leike.



Aurreko barixakuan Untzagan kanpaiñaren barri emon eben Arriola sailburuak, alkatiak eta Mankomunidadeko arduradunak.

## PARRAPAS Erromeria Taldea

# “Jairik jai ibiltzeko sortu dugu taldea”

Eibar eta Ermuko 5 gaztek osatu berri duten musika taldea da Parrapas Erromeria taldea. Marina Ereña (trikitrixa), Egoitz San Martin (gitarra), Alex Davies (baxua) eta Julen Leturiondo (ahotsa eta panderoa) eibartarrak dira, eta Josu Cascán (bateria), berriz, ermuarra. Taldearen izenerako zerbait desberdina eta eibartarra nahi zuten, eta hasiera batean erdi txantxetan bota zuten izenarekin gelditu dira azkenean: PARRAPAS. Oso gazteak dira (16-17 urte inguru dituzte), Batxillergoa ikasten dihardute, eta musika-zaletasunak elkartu ditu abentura berri honetan.

### – Zer dela eta sortu duzue Parrapas Erromeria taldea?

Orain arte gure aktuazioak musika eskolak antolatutako ekitaldiak izan dira. Coliseoan askotan izan gara, guraso eta lagunen aurrean, pare bat abesti jotzen, baina zerbait desberdina egiteko eta aurrerapausu bat emateko gogo gauen. Gazte-txeetan, txosnetan, jaietan, kale giroan,

festarik festa egon nahi dugu, jende gehiagorengana heldu, eta horretarako sortu dugu taldea.

### – Zuen nahia jendaurrean jardutea baldin bada errepertorio zabala izango duzue...

Bai. Irailean gogor hasi ginen entsaiatzen. Astean pare bat egunetan entsaiatzen dugu musika eskolan, 4 ordu guzti-

ra. Eta, horretaz aparte, etxean ere denbora mordo ematen dugu praktikatzeko. 30 abesti ditugu gure errepertorioan, batzuk erromerietan entzuten diren abesti tipikoak eta beste batzuk estilo desberdinetakoak (esate baterako, euskal rocka edo Su ta Gar-en kantu bat). Abesti batzuk gure erara moldatu ditugu, eta denon gustuko gauzak egiten saiatzen gara. Badaukagu lana guztia ondo prestatzen, eta, hemendik aparte, beste talde batzuetan ere sartuta gaude, batzuk rock taldeetan, beste batzuk trikitrixa taldean, koruan...

### – Musikak, beraz, zuen bizitzako zati handi bat betetzen du.

Bai, zalantza barik. Txikitatik dihardugu musika ikasten eta talde desberdinetan jotzen. Gutako batzuk, gainera, oso estilo desberdinetan jardun dugu. Esan daiteke guretzako hobya baino zerbait gehiago dela musika. Proiektu honetan ilusio eta gogo handiarekin hasi gara. Eibarko Udaleri San Andres jaietan jotzeko eskaera egin diogu, eta erantzunaren zain gaude. Kalean jotzen hasteko desiatzen gaude.

### – Zer egin behar da zuekin harremanetan jartzeko?

Instagram eta Facebook kontuak zabalik ditugu dagoeneko (@parrapaserromeria) eta gurekin harremanetan jartzeko parrapaserromeria@gmail.com e-posta erabili daiteke.



Argazkian, Julen Leturiondo, Marina Ereña, Josu Cascán, Egoitz San Martin eta Alex Davies.



## JESUS Mª ANSOLA ZIGORRAGA

I. urteurrena: 2016-XI-4

“BETI IZANGO ZARA GURE ARTEAN”

ETXEKOAK



Bere aldeko urteurren meza ospatuko da hilaren 4an (zapatua), 19:00etan hasita, Elgoibarko San Bartolome parrokiari



## Instagram bidez euskal esamoldeak zabaltzeko #BOTABA erronka abiatzear

Labayru Fundazioaren eskutik, azaroaren 8an abiatuko da #BOTABA euskal esamoldeen erronka. Jakingo duzuen moduan, gure hizkuntzak dituen berezko esaldi eginak dira esamoldeak eta, lehiaketarekin, lagunartean, etxean zein lanean erabiltzen ditugun esamolde horiek Instagram sare sozialaren bidez zabaltzea nahi dute. Lehiaketan parte hartzea oso erraza da: antolatzailerak astero gai bat proposatuko dute, gai horren inguruko hainbat esamoldeekin batera, eta parte-hartzaileek esamolde horietako batekin edota gaiari lotutako besteren batekin bideoa egin eta Instagram-



mera igo beharko dute, #botaba traola erabilita. Lehenengo astean, adibidez, parranda ardatz hartuta abiatuko dute lehiaketa. Partaideek gehienez hogeitasehun bideoak egin beharko dituzte, eta ondoren bideo horiek Instagramen argitaratu. Saridunak astero, eguaztenetan iragarriko dira @botabarronka Instagram kontuan, www.botaba.eus webgune ofizialean eta Gaztea Irratiko "Di-da" saioan.

### Europako hiriburu batera bidaia irabazlearentzat

Astero sari bat banatuko dute: "Atsegin dut"



gehien dituzten bost bideoen artean bakarra aukeratu du epaimahaiak, eta irabazleak Nikon Coopix A100 Selfie Kit kamera eskuratuko du. Bigarren astean, berriz, sei lagunentzako multiabentura jardura izango da saria eta, hirugarren astean, egurrezko betaurreko pertsonalizatuak. Asteroko sariekin batera, sari nagusi bat ere banatuko dute amaieran. Irabazlea epaimahaiak izendatuko du, lehiaketara aurkeztutako bideo guztien artean eta horrek Europako hiribururen batera (Berlin, Londres, Edimburgo, Amsterdam...) bidaiatzeko aukera izango du. Lau lagunentzako hiru gaueko bidaia izango da, hegaldia, ostalua eta gosaria barne.

## Errebal berrirako izena eta irudia herriko ikasleen esku

Uztailaren 26an egindako ezohiko osoko bilkurak hartutako erabakiari jarraituta, Errebalen sortuko den erabilera anitzeko eraikinaren izena eta irudi korporatiboa finkatzeko eskolarteko lehiaketa eta herri-galdeketa egingo dira eta dagoeneko horretarako lehen pausoak eman dituzte. Izan ere, orain arte udalak bi bilera informatibo antolatu ditu herriko ikastetxeetako ikasle eta irakasleekin, Errebalgo historiari buruz berba egin eta jasoko duten erabilera anitzeko eraikinaren inguruko azalpenak emateko. Udal gobernu-taldeak EH-Bildu Udal taldearekin batera iazko aurrekontuetan adostutako zuzenketatik sortu den lehiaketan atal bi bereiziko dituzte: izenen proposamenak Lehen Hezkuntzako ikasleek egingo dituzte eta irudi korporatiboarenak, berriz, Eibarren Batxilergo Artistikoa egiten ari diren ikasleek. Ondoren, behin proiektu guztiak aurkeztuta, erakusketa antolatuko dute eta izena zein irudia aukeratzeko herri-galdeketa egingo da. Lehiaketaren ideia arrakastatsua izan da eta honezgero LH ematen duten



sei ikastetxek (Juan Antonio Mogel, Aldatze, La Salle Isasi, San Andres, Amaña eta Arrateko Andra Mari) eta Batxilergo Artistikoa Eibarren ematen duten biek (Ignazio Zuloaga Institutua eta La Salle-Azitzain) eman dute izena lehiaketan parte hartzeko. LHko ikasleek azaroaren 17ra arte izango dute izen bat proposatzeko aukera. Ondoren, batxilergoko ikasleek izen bakoitzari dagokion irudi korporatiboa sortu beharko dute.

## M<sup>a</sup> LUISA GARATE ALTUNA "Marialui"

3. urteurrena (2014-XI-6)

"Ez ditugu inoiz ahaztuko izan  
dituzun ilusioa eta bizipoza"

URTEURREN MEZA

azaroaren 6an, astelehena, 19.00etan, San Andres parrokiari



Balitik (Indonesia) erantzun digu Ander Alberdik. Australiatik iritsi da hara, olatuek markatzen dioten bideari jarraituz, baina denbora gutxi barru berriz bueltatuko da Ozeaniara, oraingo honetan ekialdeko kostaldea ezagutzera. Aurretik, ordea, eskala egingo du gurean, familia eta lagunak ikusita bihotza bete eta ametsarekin jarraitzeko. Anderrek ez du txikitzen Zarautzen harrapatu zuen lehen olatutik jaitsi nahi. Edo olatuak harrapatu zuen 'Txintxe'?

– *Gogoratzen duzu taula gainean jarri zinen lehen aldia?*

Noski gogoratzen dudala! Ingelesa ikasteko udaleku batzuetara joan nintzen Zarautzera eta surfeko klaseak hartzen genituen bertan. Lehenengo klasean zutik jarri nintzen ia olatu gehienetan. Surfak harrapatu ninduen eta laga ezinda nabil ordutik.

– *Klaseak hartu zenituen edo autodidakta moduan ikasi zenuen?*

Hasieran klase batzuk hartu nituen, baina hortik aurrera nire kabuz ibili izan naiz beti.

– *Eibartarra izanda hemendik kanpo joan bihar izan zara surf egitera, jakina.*



**“OLATUEK markatzen dute nire hurrengo BIZILEKUA”**

**ANDER ALBERDI “TXINTXE”  
(SURFLARIA)**

*Nora joateko ohitura daukazu edo ze-neukan?*

Hasiera batean Deba edo Zarautzera joaten nintzen gurasoekin kotxean eta, ondoren, trenean. Orduan ez neukan hondartza askotan surf egiteko aukerarik, baina gutxika Sakoneta, Mutriku eta beste hainbat lekutara joaten hasi nintzen kotoxearekin, bai lagunekin bai bakarrik. Hala ere, normalean Deba eta Zarautzera joateko ohitura daukat.

– *Hemengo zein toki da zure gustukoena surfean aritzeko?*

Etxetik gertu daukagun lekuetatik nire gustukoena Sakoneta da. Normalean jende ezagunarekin elkartzen naiz han eta uretan dagoen giroa beste lekuetan dagoena baino hobea da niretzat. Gai-

nera, bertara joateak daukan abentura kutsuak eta sorpresa sententzio horrek asko laguntzen du.

– *Olatu handietan ere ibiltzen zara. Zein egoeratan gustatzen zaizu gehien surf egitea?*

Euskal Herrian nagoenean eta olatu haundiak datozenean, Mutriku lagun artean olatu batzuk partekatzea da baina perfektua. Giro onean 'bonba' on batzuk hartzeak ez dauka preziorik!

– *Lehiatzen ibili izan zara?*

Egia esan Debako txapelketa lokaletan eta Taldekako Europar batean bakarrik aritu izan naiz konpetitzen. Ez zait batere gustatzen presioarekin surfean jardutea eta oso urduri jartzen naiz gainera. Orduan, gustura ez ibiltzeko, nahiago izan dut beti txapelketak alde batera uztea.

– *Australiara joan zinen iaz. Zertara?*

Australiara joatea beti izan da nire ametsetako bat eta, bisa lortzeko urtebetez bueltaka ibili ondoren, orain dela hamahi-



**“Mutriku  
lagun artean olatu batzuk  
partekatzea da baina perfektua”**





## “Surfa bizitzaren zati oso adierazgarria da niretzat, nire bizimoduaren parte da”

ru hilabete bertara heldu ginen nire neskalagun Leire eta biok abentura eta olatu bila. Bertan, zazpi hilabetez lanean egon ginen herrialdearen mendebaldean dagoen Margaret River izeneko herri baten eta, egia esan, surf egiteko ezagutu dudan leku onenetako bat da. Olatu oso onak eta giro ezin hobea. Handik Darwinera bidaiatu genuen furgonetan, hilabetez olatu ezberdinak eta parke nazionalak bisitatu.

### – Zer moduz han?

Oso esperientzia polita izan da eta surfaren aldetik asko hobetzeko lagundu dit.

Bi hilabete barru Australiako ekialdeko kostaldetik bidaiatzeko asmoa daukagu.

### – Modu ezberdinean bizi da han surfa?

Margaret River oso herri txiki eta hippya da, eta bertako jende gehienak egiten du surfa. Txiki txikitatik uretan ibiltzen dira, eskolara joan baino lehen eta baita ondoren ere, eta eurentzat eguneroko ohitura da. Jende nagusi asko ikusten da uretan ere.

### – Balin (Indonesia) zaude orain. Zein asmorekin?

Orain dala 5 hilabete iritsi ginen Balira

eta hotel batean egon gara lanean. Denboraldi baterako etorri gara, hemen dau den olatuez eta kulturaz gozatzeko, baina berriz Australiara joateko gogoarekin gaude, diru pixka bat egin eta bidaiatzeko.

### – Surfaren kultura modan dagoela ematen du. Zuk babesleak dituzu. Horretaz bizitzea posible da nahiz eta lehiatzen ez ibili?

Egia da surfa modan dagoela eta asko nabari da hori, hondartzetan gero eta jende gehiago ikusten delako. Gero eta zailagoa da jende gutxiarekin surfean jardutea, eta surfak daukan irudi lasai eta giro onekoa apurtu egiten da askotan uretan. Gainera itxurakeria asko dago eta leku gutxitan sentitzen da aipatu dudan surfaren esentzia hori. Nik zorte ona izan dut eta babesleek asko laguntzen didate, nahiz eta ez naizen lehiaketatan aritzen. Surfaz bizitzea oso zaila da profesionala ez bazara, baina nire kasuan surf egiteko oholak, trajeak, arropa eta abarrak doan izatea luxu bat da! Eta demaseko laguntza! Sare sozialetan nire argazkiak ipini eta marka guztiak aipatzen ditut, eta horrela lortzen dut babesleen laguntza. Orain, ikusten duzuen bezala, surfa bizitzaren zati oso adierazgarria da niretzat, nire bizimoduaren parte da. Olatuek markatzen dute nire hurrengo bizilekua.

*Bere neskalagun Leirerekin batera bizi du bere abentura Txintxek.*



Asier Errasti Film Laburren Lehiaketaren 18. edizioan Eibarko bi ordezkari izango ditugu: Mikel Rodriguez Alberdi, "Betikoak betirako" lanarekin, eta Koldo Edorta Carranza, "Ilunpetan" zuzentzen. Carranzarekin izan gara bere lehen lanaren nondik-norakoak ezagutzeko eta laburmetraien inguruan zein asmo dituen jakiteko. Bilbon bizi denez, ezingo du jaialdia egunez egun bizi, baina barixakuan gurean izango da, bere filma emango dutela aprobetxatuz.



## **KOLDO EDORTA CARRANZA:**

# "Harro nago filma osorik nik neuk egiteaz"

– **Noiz grabatu zenuen "Ilunpetan"? Zenbat denbora eraman zizun proiektua amaitzeko?**

Iazko ekainean grabatu genuen, hau da, urtebete pasatxo da dagoeneko lana amaitu genuenetik. Hasieratik amaierarainoko lanak, bestalde, urtebete osorik eskatuko zidan. Kontuan izan behar da ia guztia nik bakarrik egin dudala, nire kabuz egindako produktua dela; askotan gauez ibili naiz filma osatzen, lanetik irten eta gero.

– **Zer da film labur horretan kontatzen dizuna? Badu mezurik?**

Maitemintzen diren bi nesken istorioa kontatzen du, eurak dira protagonista bakarrak eta ez da gizonekorik filmean. Argiarekin lotu izan nahi dut bien arteko harremana, bietako batek euren arteko erlazioan ez duelako argirik nahi. Ilunpetan, itzaletan bizi dute euren artekoa. LGBT (lesbiana, gay, bisexual eta transexual) kolektiboko hainbati gertatutakoa islatu nahi izan dut eta askotan sentitutako lotsa hori adierazteko erabili dut argi -edo argi falta hori- mezu moduan. Metafora moduko

bat da, homosexualek, bisexualek eta transexualek bizitutako hori kaleratzeko.

– **Zenbat irauten du?**

Bost minutura ez da heltzen: 4 minutu eta 40 segundo.

– **Eibarrera etorri baino lehen, aurretik aurkeztu duzu beste nonbaiten?**

Bai, estreinaldia Zinegoak-en egin nuen, Bilboko gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdian. Ondoren, Lekeitioko Euskal Zine Bileran, soilik euskerazko lanak hartzen dituen jaialdi bakarrean ere aurkeztu nuen. Bietan jasotako erantzunarekin oso pozik nago, batez ere kontuan izanda horretarako bakarrik nire baliaideekin moldatu naizela. Inguruko jendea ezagutzeko ere balio izan dit.

– **Bestelako proiekturik bai esku artean?**

Datorren urtera begira banabil zeezer egingen, baina ezin dut aurreratu. Gainera, nire lana dut (ingeles irakaslea da Bilbon) eta lan orduetatik kanpo moldatu behar naiz gauzak egiteko. Laburretik luzemetraira jauzia ematea ere gustatuko litzaidake, baina zaila da: ikasten dihardut oraindik.

– **Zer eritzi duzu Asier Errasti Jaialdiaren inguruan?**

Aproposa ikusten dut, batez ere jende dezente gabiltzalako zinemaren inguruan. Garrantzitsua deritzot, batez ere gure artean elkartzeko balio duelako eta baita beste proiektu batzuk sortzeko bidea zabaltzen duelako ere. Gustatuko litzaidake Jaialdiaren bost egunetan Eibarren izatea, baina nire lanak ez dit horretarako aukerarik ematen eta azken egunean izango naiz, "Ilunpetan" nire fikziozko filma emateko den egunean bertan. Eta Eibartik kanpo ere banabil bestelako jaialditan pelikula mugitzen, ahalegina beharrezkoa delako.

– **Baduzu gustuko zuzendaririk laburmetraien munduan?**

Bai, asko. Ia guztiekin erreparatzen diet, edozein proiekturako ikastea beharrezkotzat jotzen dudalako. Gertukoenetik hasita, Koldo Almandozen lana oso gustuko dut, baita Moriarti Produzioak ere -hortik sortu zen "Loreak" filma-, hor dago Asier Altuna bera... Orokorrean, euskal zinemagileek lan handia egin dute arlo horretan.

## 2.000 euroko Gabonetako OTARRA



## Gaur eta bihar kalean erosteko aukera

Gaur (19:00-21:00) Bihar (13:00-14:00)

### SALMENTA LEKUAK:

El Corte Ingles, ...eta kitto!, Isasi okindegia, Mujika eta Otegui harategiak, Echetto eta Arriola prentsa, Maria Ospitxal (Calbeton), Bolintxo, AEK eta Udal Euskaltegia, Izadi loradenda, Lamia ileapaindegia eta Kultu





## 45 lan ikusi ahal izango dira XVIII. Asier Errasti Jaialdian

Datorren asteko astelehenean hasi eta zapatara arte iraungo du Asier Errasti Film Laburren Lehiaketaren XVIII. edizioak. Jaialdia antolatzen duen Plano Corto elkarteak lehiaketan parte hartuko duten lanak eman ditu ezagutzera eta, fikziozko 36 lanekin batera, animaziozko beste lau, euskerazko hiru eta Eibarko bi egongo dira ikusgai. Lanak hilaren 6tik 10era proiektatuko dituzte Coliseoan eta azken egunean, zapatuan, egingo den amaierako ekitaldian jakinaraziko da zeintzuk izan diren sarituak. Bost sari egongo dira: Javier Agirresarobe fikzioa (lehen eta bigarren sariak), euskarazko onena, animaziozko onena eta Eibarko onena. Emanaldi guztiak arratsaldeko 20:00etan hasiko dira eta sarrera doan izango da.



### ASTELEHENA, 6:

- "3 gramos de fe" (Jose A. Campos), 15'
- "El sueño espacial" (Ignacio Malagón), 9'
- "Cavalls mort" (M. Riva & A. Solanas), 6'
- "Andante piú forte" (Amaia San Sebastian), 13'
- "Time lapse" (Christian Avilés), 2'
- "D-funcionario" (Miro Berriatua), 18'
- "Vacío" (Sergio Martínez), 16'
- "Voyage spatial" (Guillermo A. Chaia) 6'
- "Servicio de habitaciones" (Saul Gallego), 14'
- "Mario" (Carlos Velasco), 9'

### MARTITZENA, 7:

- "Cirilo" (Ruben Sainz), 13'
- "Orgullo nacional" (Victor Ruiz), 11'
- "El niño y el erizo" (M. Riva & A. Solanas), 3'
- "Kreba" (Oier Fuentes), 12'
- "Mujer y filipina" (Luis Jiménez), 17'
- "Vida y muerte de Jen." (Javier Roldan), 13'
- "72 vírgenes" (Max Lussion), 8'
- "Respirando" (GMar Olid) 20'
- "Jackers" (Jorge Mayorga), 11'

### EGUAZTENA, 8:

- "Bus story" (Jorge Yudice), 10'
- "Cuestión de suerte" (Axier González), 18'
- "Dent de lleo" (Jorge Bellver), 7'
- "Prudentzio" (Pedro Saldaña), 8'
- "Chain of hurt" (Sofia Arias), 8'
- "Adivina" (Gonzaga Manso), 20'
- "Elegía" (Alba Tejero), 15'
- "Zarpazo" (Nerea Castro) 14'

### EGUENA, 9:

- "Eclipse" (Santi Planet), 10'
- "Laborable" (Alejandro Marín), 17'
- "Denbora" (Gorka Vales), 1'
- "Errailak" (Aitor Ormaetxea), 7'
- "Funky Lola" (Julio Mas), 17'
- "Por Sifo (Slow wine)" (Guillermo Rodríguez) 10'
- "16 semanas" (Carlota Coronado), 6'
- "Madre" (Rodrigo Sorogoyen), 18'
- "Australia" (Lino Escalera), 14'

### BARIXAKUA, 10:

- "Fugit" (Marta Bayarri), 15'
- "El andar del borracho" (Pol Armengol), 15'
- "Haloperidol" (Jose Manuel Carrasco), 2'
- "Ilunpetan" (Koldo E. Carranza), 4'40"
- "Betikoak betirako" (Mikel Rodríguez), 3'45"
- "El atraco" (Alfonso Díaz), 10'
- "Nada que ver" (Manuel Manrique), 13'
- "Ni una sola línea" (Victor Somoza) 17'
- "Candela" (David Fernández), 19'

Zure enpresa erakusteko  
 leku aparta

# GIDA

## KOMERTZIALA 2018

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus  
 943 20 67 76  
 www.etakitto.eus



## Asola Berriko Bittor Astigarragak jantzi du Euskadiko hiru-txirlo txapela

Eibartarrak, gainera, hiru txirloko aldea atera die azken sailkapen orokorrean jarraian sailkatu diren San Migueleko Xabier Loiola eta Angel Ibarluzeari eta Lasturreko Gotzon Urangari. Sailkapen absolutuaz gain, Astigarragak nagusien sailkapena ere irabazi du eta, horrez gain, beste bi txapel ere etorri dira Eibarrra: taldeka Asola Berri A-k irabazitakoa (17 txirloren aldea kenduta bigarrenari) eta alebinetan Ugaitz Seguroak irabazitakoa, Kepa Rodri-

guez taldekidearen aurretik. Txapela eskuratu barik gertu ibili ziren Sonia Gomez (bigarrena emakumezkoetan) eta Bittor biak ere (Astigarraga eta Ugarteburu, hauek ere bigarrenak bikoteka).

Bolibarko Iruzubietan jokaturako azken tiraldian 50 bolarik hartu zuten parte eta San Migueleko Unai Loiola nagusitu zen, 9 txirlorekin, Lasturreko Gotzon Uranga eta Asola Berriko Juan Luis Rodriguezekin berdinduta.



*Bittor Astigarragak nagusitasunez irabazi du Euskadiko txapela eta, horrez gain, Asola Berrikoek beste sari batzuk ere bereganatu dituzte.*



*Julian Eraso Euskal Herriko Itzuliaren zuzendariaren taldeak 2018ko edizioaren ibilbidea dihardu prestatzen.*

## Hurrengo Euskal Herriko Itzuliaren erlojupekoa aurreratu egingo dute

Eibarrek hartuko du Itzuliaren amaiera, baina azken urteetan amaiera hori erlojuz kontrako etapak hartzen bazuen, oraingoan linean jokatutakoa izango da. Apirilaren 2an Zarautzen hasi eta 7an Eibarren amaituko den itzuliak, ohikoa denez, Euskal Herri osoa izango du probaren lekuko. Asteleheneko etapak Zarautzen izango du irteera eta helmuga, martitzenekoa Markina-Xemeinen amaituko da ziur aski, eguaztenekoak Bizkaia eta Araba lotuko ditu Añana inguruan amaitzeko eta eguenekoak erlojuz kontrako hartuko du, Lodosan jokatuko den eskakizun handiko 18 kilometrotako ibilbidean.

Itzuliaren azken pedalkadei begira, Arraten amaituko den etapa ez da faltako, azken urteetan moduan igoretako bat %15eko desnibela duen Matsariako bidetik egiteko.

### Oiz Espainiako Itzulian eta Senpere Tourrean

Senperen hurrengo Tourraren azkenareko etapa hartuko du, Ezpeletan amaituko den 30 kilometroko erlojupekoa. Eta Oiz mendiko tontorrean amaituko da, bestalde, Espainiako Itzuliko etapa bat, Bilboko Portuan hasi eta "Bizkaiko balkoitik" pasatuko dena, asfaltatu gabeko azken kilometroekin.

## Neguko asteburuetan Ipurua kiroldegiko instalazioak erabiltzeko sasoia zabaldu da

Domusantu egunean hasi zen martxoaren 25era arte iraungo duen domeka eta jaiegunean Ipurua kiroldegiko instalazioak erabiltzeko aukera. Ordutegia honakoa izango da: goizez, 09:00etatik 13:00a arte eta, arratsaldez, 16:00etatik 20:00etara. Egitarau horren barruan sartzan dira domekako patinaje saioak, eta horiek ere Aste Santura arte iraungo dute. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte iraungo duen jardura horretarako begiraleak egongo dira, baina ez dira pistatik kanpo dauden umeez arduratuko eta ezta umeei patinak jartzeaz (guraso edo tutoreen arduraz izango da hori).



## Kirol elkarten komunikazio beharrak hobetzeko jardunaldiak

Kirol Elkarteen komunikazio alorrean laguntza eskaini asmoz, Debagoieneko Mankomunitateak hitzaldi-ziklo bat antolatu dute azarorako. Lehendabizikoa, "Zergatik landu kirolean marka?" azaroren 8an izango da Arrasateko Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. Hor Gemma Baqué Eibar

**Kirol elkarteak eta komunikazio beharrak**

Las asociaciones deportivas y las necesidades de comunicación

Hitzaldi zikloa / Ciclo de conferencias

Azarorak 8 / 15 / 22 noviembre

Eman izena [debagoiena.eus](http://debagoiena.eus)

**Zure Kirol elkartearen komunikazio alorra hobetu nahi?**

FTko marketing zuzendariak "Eibar K.E. marka" gaiaren inguruan jardungo du. Azaroren 15ean "Sare sozialak - komunikazio estrategia" gaiari buruz jardungo dute Bergarako pleno aretoan, eta azaroren 22an, Oñatiko Santa Ana aretoak "Babesletza strategiaren gaineko mahai-ingurua" hartuko du. Saio guztiak 18:00etan izango dira. Izen-ematea [debagoiena.eus](http://debagoiena.eus) webgunean egin daiteke.



## V. Asier Cuevas herri-lasterketak herria kirolari bihurtu zuen arratsaldea

Aurreko zapatuan jokaturako proban 260 izan ziren izena eman zuten atletak. Haietako 248 helmugaratu ziren, hortik 49 emakumezko (%20). Oraingoan Asier Cuevas bera ere izan genuen parte hartzen. Ander Sagarzazu donostiarrak irabazi zuen proba, Anartz Mujika soraluzetarraren eta Julen Teran eibartarraren aurretik (azken hau juniorra). Emakumezkoetan segundo bakarra atera zion Maite Arraiza donostiarrak Aitziber Urkiola eibartarrari; hirugarrena izan zen Nerea Arregi arrasatearra. Beteranoetan Miguel Angel Encina eta Onintza Zeberio izan ziren onenak eta juniorretan, bestalde, Amine Haissouf eta Ane Garrido. Eta lehen eibartarrei zegozkien sariak Josu Azkonagak eta Ane Ziaranek jaso zituzten. Kirol egokituaren saria Imanol Elkoroberezibarrentzat izan zen. Kirol Egokituko Federazioak eta Ostadar Elkarteak (kirol egokituaren laguntzaile) garaikurra jaso zuten Klub Deportiboko antolatzaileek eskaini zieten omenaldiaren barruan. Bestalde, Multikiroletako umeez ere izan zuten euren tartea: *“Bi taldetan banatuta, baten atletismoko probak egin zituzten eta bestean kirol egokitukoak, Federaziotik ekarritako materialekin”*. Eibarko 119 ordezkarien sailkapena duzue jarraian:

3	Julen Teran	.....24' 12"	150	Jose Ignacio Amesti	.....33' 02"
17	Josu Azkonaga	.....25' 19"	154	Jon Perez	.....33' 49"
19	Txomin Osoro	.....25' 23"	155	Oier Berrizbeitia	.....33' 52"
22	Igor Atxa	.....25' 30"	156	Iosu Alonso	.....33' 52"
26	Iker Aranzibia	.....25' 35"	158	Mikel Obxo	.....33' 53"
27	Jon Zubia	.....25' 37"	159	Pablo Valle	.....33' 54"
33	Pello Berrizbeitia	.....26' 00"	161	Javi Ortega	.....33' 55"
35	Iñigo Trokaola	.....26' 12"	162	Aitor Zabala Osoro	.....33' 56"
36	Juan Zubiaurre	.....26' 15"	163	Alberto Agirre	.....34' 05"
39	Roberto Gartzia	.....26' 33"	164	Marina Kruzelaegi	.....34' 21"
41	Aitor Bastida	.....26' 45"	165	Maialen Zubizarreta	.....34' 21"
49	Jokin Alonso	.....27' 16"	166	Asier Biribay	.....34' 37"
51	F. Roitegi	.....27' 18"	167	Jaime Mendiguren	.....34' 42"
52	Javier Murcia	.....27' 20"	168	Izaskun Anunzibai	.....35' 11"
55	Igor Hernaez	.....27' 23"	169	Jokin Hernandez	.....35' 20"
56	Fran Guruzeta	.....27' 25"	170	Ibai Larrañaga	.....35' 20"
57	Eduardo Cid	.....27' 28"	172	Emilio Pita	.....35' 38"
60	Mikel Laskurain	.....27' 31"	173	Roberto Fernandez	.....35' 39"
61	Aitziber Urkiola	.....27' 32"	174	Paula Pereira	.....35' 42"
62	Jon Illarramendi	.....27' 33"	175	Ernesto Etxabe	.....35' 43"
64	Imanol Lahidalga	.....27' 59"	176	Ion Ander Astigarraga	.....35' 51"
66	Pablo Zabala	.....28' 05"	177	Alberto Gonzalez	.....35' 51"
67	Aitor Oiarzabal	.....28' 08"	178	Ruben Gonzalez	.....35' 52"
69	Enrique Guruzeta	.....28' 18"	182	Esther Larrañaga	.....36' 13"
71	Ander Agirre	.....28' 22"	186	Idurre Albizu	.....36' 16"
79	Markel Gutierrez	.....28' 32"	191	Alberto Saenz de Biteri	.....36' 27"
80	Iosu Lahidalga	.....28' 33"	192	Alejandro Telleria	.....36' 27"
82	Axier Gisasola	.....28' 40"	194	Manuel Campo	.....36' 28"
85	Juanjo Romero	.....28' 53"	195	Txomin Aizpurua	.....36' 36"
86	Oskar Hurtado	.....28' 56"	197	Oscar Rodriguez	.....36' 44"
90	Unai Mutilba	.....29' 09"	198	Nerea Ziaran	.....36' 45"
98	Juan Carlos Jimenez	.....30' 10"	199	Aitor Aizpuru	.....36' 45"
100	David Hidalgo	.....30' 16"	200	Andres Arizmendiarieta	.....36' 55"
101	Asier Belategi	.....30' 19"	201	Imanol Elkoroberezibar	.....36' 56"
104	Iker Aristondo	.....30' 30"	202	Lourdes Iriarte	.....37' 03"
105	Iñigo Poves	.....30' 32"	203	Kristina Olañeta	.....37' 04"
108	Eneko Diaz	.....30' 49"	204	Aimar Goenaga	.....37' 11"
109	Aitor Zubizarreta	.....30' 51"	205	Pablo Rodriguez	.....37' 22"
110	Oskar Igarza	.....30' 55"	206	Markel Larruskain	.....37' 22"
115	Eduardo Oyarzun	.....31' 20"	207	Eneko Eizagirre	.....37' 35"
116	Ibai Lazkano	.....31' 21"	208	Mikel Migueleena	.....37' 44"
120	Iñigo Prieto	.....31' 27"	211	Ane Mendia	.....37' 59"
122	Ane Ziaran	.....31' 38"	214	Jose Antonio Alberdi	.....39' 10"
123	Kristina Ruiz	.....31' 39"	217	Fidel Gonzalez	.....39' 52"
124	Aitor Zabala Aia	.....31' 39"	218	Norea Alvarez	.....39' 52"
125	Iñaki Penedo	.....31' 40"	220	Lagore Cuevas	.....40' 19"
127	Enrique Salgado	.....31' 45"	222	Igor Eizagaetxeberria	.....40' 30"
128	Rafa Prieto	.....31' 47"	227	Nagore De la Rosa	.....41' 29"
129	Igor Azurmendi	.....31' 48"	229	Sebastian Lobato	.....42' 17"
132	Mikel Sologaitua	.....31' 54"	230	Angel Muñoz	.....42' 27"
133	Koldo Mujika	.....32' 02"	231	David Riaño	.....42' 46"
135	Felipe Sanchez	.....32' 07"	233	Iraty Goikoetxea	.....43' 31"
136	Miren Gallastegi	.....32' 07"	234	Silvia Valencia	.....43' 49"
141	Jon Mikel Mujika	.....32' 17"	235	Amaia Albizu	.....43' 51"
143	Javier Silva	.....32' 19"	236	Jon Baglietto	.....44' 50"
145	Arrate Gutierrez	.....32' 21"	239	Jose Angel Diaz	.....45' 26"
146	Eneko Perez	.....32' 32"	240	Laura Ferreño	.....45' 26"
147	Mikel Lazpita	.....32' 34"	241	Joakin Egja	.....45' 26"
148	Beñat Alberdi	.....32' 34"	242	Itziar Rodriguez	.....45' 26"
149	Luis M <sup>a</sup> Amesti	.....33' 02"			





## Baja askorekin aurkeztuko da Eibar FT Anoetan domeka arratsaldean

Puntu premia handia du Eibarrek bere atzetik dituen hiru taldeetatik inork ez harrapatzeko. Las Palmas, Málaga eta Alavés daude sailkapeneko hiru postuetan eta horra ez jaitea da eibartarren asmoa. Anoetan domekan 18:30ean jokatu den partidurako hainbat baja ditu Mendilabarren taldeak, batez ere zelai erdiari dagokionez, Dani Garcia eta Escalante baja izango direlako, lehenengoa zigortuta eta bigarrena bost asterako min hartuta. Azken domekan Levanteren aurkako partiduan, behintzat, hobeto jokatu zuten eibartarrek eta horrek itxaropena pizten du.

Bestalde, Eibar FT-k 2017-18 denboraldiko poster ofiziala kaleratu du. Ipueruako bulegoetan, Askasibar kirol-dendan eta Premier Bidaiek-en jaso daiteke. Alde batean talde nagusiaren argazkia dago, eta atzeko aldean emakumezkoen lehen taldea eta harrobiko beste hamarrak agertzen dira. Argazkisaioa Astelena frontoian egin zen irailaren amaieran.



Poster berria kalean da dagoeneko eta Ipueruako bulegoetan, Askasibarren eta Premier Bidaiek-en eskuratu daiteke.



## Kalamuako Jonatan Terrón Europako txapelkun bitan

Aurreko zapatuan Alacanten jokatuako jiu jitsuko Europako txapelketan Kalamuako kirolariak Europako Master Urdina txapela jantzi zuen eta baita brasildar jiu jitsuko Master txapel absolutuarena. Jonatan Terrónek, gainera, brontzezko domina lortu zuen Espainiako Grappling txapelketan. Eibartik irten gabe, bestalde, aurreko asteburuan infantil mailako torneoa eta Eibar Hiria emakumezkoen nazioartekoa jokatu ziren Ipuera kiroldegian. Lehenengoan 195 neska-mutil izan ziren parte hartzen, tartean 40 Kalamuakoak, eta Elikadura Bankuari laguntzeko janari asko bildu zen bertan. Nazioarteko torneokoak 80 emakumeren parte hartzea izan zuen eta eibartarrak bikain moldatu ziren. Iker Martinezek, bere aldetik, lan bikaina egin du Errumanian jokatuako jiu jitsuko Europako txapelketan eta 7. postuan sailkatu da juniorretan. Eibarren hirugarren aldiz jokatu den jiu jitsuko eta Ne Wazako Espainiako Kopan izango dute hurrengo erronka Kalamuakoek: 215 kirolari izango dira guztira, haietako 30 Kalamuakoak.

## Asteburu ona izan zen azkena errugbian, saskibaloian eta eskubaloian

Errugbiko talde nagusiak garaipen garrantzitsua eskuratu zuen Durangon, Durango Nissan-Gaursari 35-36 irabazita. Emaitza horrekin, gainera, aurrea hartu diete bizkaitarrei. Emakumezkoen taldeak Universitario Bilbao Rugbyri irabazi zion El Fango kirol zelaietan (24-84). Ez zuen zorte bera izan senior mailako gizonen bigarren taldeak: ondo borrokatu bazuten ere, azkenean 12-13 amore eman behar izan zuten Unben Escor Gaztedi B taldearen aurrean. Saskibaloian indartsu hasi du denboraldia Katu-

Kalek eta, Tolosan jokatuako partiduan, 49-67 irabazi zion bertako Take Coach taldeari. Will, 15 punturekin, eta Aitor (14) izan ziren saskiratzaille onenak partidu horretan. Bihar, 18:15ean, Beasaingo BKL hartuko dute eibartarrek Ipuera kiroldegian. **Eskubaloian**, bestalde, Somos Eibar talde nagusiak ez zuen partidurik izan, baina Haritza bigarren taldea erraz nagusitu zen Leizaran Ernioren kantxan (20-33). Euskal Ligan jokatzeko duen Avia Eibar emakumezkoen lehen taldeak 22-26 galdu zuen.

www.kolorlan.com

667 54 89 16

**KOLORLAN**  
PINTURA LANAK S.L.

URRIA  
AZAROA  
ABENDUA

4 aulki  
100€  
tik aurrera

artezi

Migel de Aginaga 9. Eibar. 943700994

Latoz eta aukeratu zure oihala!





# Amañako Jaien alde

**HONAKO ENPRESEK**  
futbol-kamiseten zozketarako  
zenbakietan  
**INBERTITU DUTE**

**Hidalgo**  
ABOGADOS  
Y ASESORES  
Errebal, 22

**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.  
*eraikuntzak erreformak igeltseritza*  
Azitain Industr., 3H

**Gaurve**  
Calbeton, 13-15

**Eibarbus**  
*Desde siempre, en buenos manos*  
Isasi, 20

**CARTONAJES EIBAR, S.L.**  
Azitain Industrialdea, 2  
www.cartonajeseibar.com / 943-201620

**SANTANA**  
ITURGINTZA eta INSTALAZIOAK, S.L.  
Urasandi, 17 - ELGOIBAR

**FEREDU SOLUTIONS S.L.**  
REHABILITACIÓN Y REFORMAS  
www.feredusolutions.com  
Tfno: 669476122  
Goenkale, 9 -2.A - ERMUA

**BOJ**  
Matsaria, 21

e-mailez ([eibarcamisetas@gmail.com](mailto:eibarcamisetas@gmail.com)) eta whatsapp-ez (**690 610 715**) erosi dezakezu.  
Boletoa eskaneatuta bidaliko dizugu.



**PAULA QUINTANA**  
(antzezlea eta dantzaria)

– *Gizakia gizakira hurbiltzeko desira duen ikuskizuna da 'Latente'. Gure bizitzaren bidean galdu gara? Bizitzaren esentzia galdu dugu?*

Gu bezalakoa den pertsona ikusiko dugu eszenan, eta gure burua islatuta ikusiko dugu moduren batean. Hori da ikuskizunaren funtsa, ikuslea pertsonaiekin identifikatuta sentitzea. Egunerokoan aurrera egiteko nahi horretan, benetan nahi dugun hori ahazten dugu agian.

– *Antzerki eta dantza ikuskizuna izango da. Horrela, publikoari errazagoa egingo zaio mezua ulertzea edo aparteko esfortzua egitea eskatuko dio?*

Ikuskizunaren hasieran zalantza momentu bat dago, bapatean dantza egiten dudalako eta gero berba, baina lehen hamar minutuak irauten ditu une horrek. Gero, jendeak ahaztu egiten du dantzan edo

## “‘Latente’ ikuskizunak mezu bat baino gehiago kaleratzen ditu”

Bere lanen bitartez antzerki garaikidea hurbildu nahi dio Paula Quintanak horrelako ikuskizunetara ohituta ez dagoen publikoari. “Eta horregatik funtzionatzen du”, dio zuzendari, antzezle eta dantzariak. ‘Latente’ ikuskizunak bi urte daramatza Espainiako eszenatokietan biratzen eta sariak jasotzen, eta Quintanaren arabera, “zoriona besterik ez dit ekarri”. Gaur 22:00etan Coliseoan izango dugu ikusgai.

berbetan nabilen. Gauza batzuk hobeto transmititzen dira testu bitartez, eta beste batzuk mugimenduekin. Hori da pertsonaiari gertatzen zaiona eta komunikatzeko duen modua da.

– *Ikuskizunaren zuzendari eta protagonista zara, eta zure burua bilatzen duzu publikoaren artean lehen eszenan. Gai pertsonaletan oinarritzen zara sortzeko orduan?*

Pertsona moduan (ez antzezle edo dantzari moduan) arduratzen nauten gaiak tratatzen ditut. Ez dut uste zerbait pertsonala denik, baizik eta niri eta edozein pertsonari kezkatu ahal dioten gaiak direla. Ikusleei zentzu batean edo bestean lagundu ahal dien gaiak lantzen saiatzen naiz. Lengoaia pertsonala erabiltzen dut, nik sortu eta antzeztzen dudalako, eta nik ikasitako lengoaiatik komunikatzen ditudalako ideiak.

– *Zu jartzen zara ikusgai eszenatoki gairen, baina publikoak ere garrantzia dauka ikuskizunaren garapenean?*

Publikoa beti hartzen dut kontuan nire ikuskizunetan. Egiten ari naizena publikoari emozionalki heldu arazten saiatzen naiz. Dantza edo antzerki garaikideko ikuskizunak direla onartzen dut, eta publikoa ez dagoela horietara ohituta, baina beti hartzen dut aintzat publikoa. Norberaren esku dauden ikuskizunak dira. Iristen zaionaren, euren bizitzako momentuaren eta horren inguruan egiten duten interpretazioaren arabera eragingo die ikusleei. Ez da mezu itxiko ikuskizuna. Gai pertsonalak lantzen ditu, beraz, bakoitzak bere eremu pertsonalera eramango ditu. Denok partekatzen ditugu hainbat arduraren bitartean gure bizitokia, adina, generoa edo izena zein den axola gabe.

## Carlos Espigak irabazi du Aire Zabaleko Pintura Lehiaketako sari nagusia

**Eibarko Artisten Elkarteak, Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatutako Aire Zabaleko Pintura Lehiaketako sari nagusia Carlos Espiga bilbotarrak eraman zuen domekan. Helduen mailako beste sariak, berriz, Leticia Gaspar, Jokin Telleria eta Piedad Santamaria artistek jaso zituzten, hurrenez hurren. Gazteen artean, berriz, Miren Ereña eta Anne Pascual nagusitu ziren 13-18 urte bitartekoen mailan eta 12 urtetik beherakoen artean, berriz, Aiora Goitandia eta Amaia Basterrika saritu zituzten. Aurten 40. edizioa bete duen lehiaketan 52 lagunek hartu zuten parte.**



## “Viaje al fin de la noche” antzezlanaren taularatuko dute bihar

**Bihar 20:30ean “Viaje al fin de la noche” antzezlanaren eskainiko du Proyecto 43-2 konpainiak Coliseo antzokian. Antzezlanak kontatzen duen istorioa gaur egungo Euskal Herriaren mosaiko moduko bat da, oraindik entzun ez diren ahotsak, biolentziaren seme-alaben hitzak abiapuntu modura hartuta eraiki den istorioa. Pablo Rodríguez zuzentzen duen lan honetan parte hartzen duten antzezleak Alfonso Mendiguchia eta María San Miguel dira. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Lagunak txartelarekin).**







## Tolosako lehiaketako Hungariako haur-abetesbatza 6an Coliseoan


Azaroaren 1ean hasi eta atzo amaitu zen Tolosako Abesbatza Lehiaketaren 49. edizioan parte hartu duen "Lautitia children's choir", Hungariako 40 haurrek osatutako abesbatza, Eibarren ikusteko aukera izango dugu, astelehenean 20:30ean Coliseoan eskainiko duen emanaldian. Katalin Kissné Weiser-ek 1959an sortutako korua, abesbatzako kide izan zen József Nemesek zuzentzen du 2006az geroztik. Sari ugari eskuratu ditu, baina bereziki azpimarratzekoak dira European and World Choir Championships, KOTA saria eta Hajdú-Bihar konderriko lehen saria. Debrecenen, Kodály Filharmónian aritzen dira, baita Csokonai antzokian eta Greziako komunitate katolikoaren elizan ere. Kontzerturako sarrerak 3 euro balio du.



## Esther Fernandez de Maruriren margolan-erakusketa Topalekuan

Gaur arratsaldean, 19:00etan zabalduko dute Esther Fernandez de Maruriren margo-erakusketa Topalekuan. Azaroaren 19ra arte martxan egongo den erakusketa ikustera joan nahi dutenek ohiko ordutegian izango dute horretarako aukera: astegunetan, 19:00etatik 21:00etara eta zapatu eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

## Gerardo Rifon organojolearen kontzertua San Andres elizan



Datorren eguaztenean, 20:00etan, kontzertua emango du Gerardo Rifón, Donostiako Orfeoia-ekin batera diharduen organojoleak San Andres elizan. Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako kontzertua izango da, Eibarko Udalaren eta San Andres parrokiaren laguntzarekin antolatutakoa. Musikariak eskainiko duen programa "kalitatezkoa eta entretenigarria, publiko guztietarako modukoa" izango dela aurreratuko dute antolatzaileek.

## Ikastaro bi antolatu dira Gurasoak Martxan programaren baitan

Azaroarako bi ikastaro antolatu dituzte Gurasoak Martxan programaren barruan: "Teknologia berriak eta sare sozialak: harreman sanoak" izenekoa hiru saiotan (azaroak 8, 14 eta 22) emango dute eta "Ikaskuntzaren gakoak" izenekoa, berriz, azaroaren 28an izango da. Saio guztiak Portalean izango dira,



Gurasoak martxan

18:00etatik 20:00etara eta gaztelaniaz emango ditu Baikorako Garbiñe Arrizabalagak. Interesa duten gurasoek seme-alaben ikastetxean eman dezakete izena edo, bestela, [gizartekintza@eibar.eus](mailto:gizartekintza@eibar.eus) helbidera mezua bidalita.

## San Andres bertso jaialdia 24an

Azaroaren 24an, barixakua, ospatuko da XXIII. San Andres Bertso Jaialdia. Aurten ere laukote bikainak bisitatu gaitu: Alaia Martin, Andoni Egaña, Miren Amuriza eta Sustrai Kolinak jardungo dute nor baino nor Jon Mikel Mugikaren aginduetara. Sarrerak datorren barixakuan, azaroak 10, jarriko dira salgai 6 eurotan Sagar Bitza, Kultura eta Guri di tabernetan. Egunean bertan Portalean erosteko aukera ere izango da. Jaialdia 19:00etan hasiko da areto nagusian, baina aurretik, 18:30ean, San Andres Bertso Paper lehiaketako sariak banatuko dira. Oraindik bada bertsoak aurkezteko aukera, hurrengo astelehenean, azaroak 6, amaitzen da-eta lanak entregatzeko epea.



## Miren Narbaizaren bakarkako lana

Bakarkako lehen diskoa prest du Miren Narbaizak, MICE izenpean. Hamabi urtez Ander Mujikarekin batera Napoka Iria taldean ibili eta gero, musikan bakarkako bideari ekin dio eibartarrak, MICE izen artistikoa hartuta. Diskoa Berako Atala estudioan grabatu du, hirukote formatuan, Joseba Baleztena (gitarrak, teklatuak, baxua, perkusioak...) eta Ilargi Agirrearekin (bateria, perkusioa). Joseba Baleztena bera arduratu da ekoizpen artistikoaz. Azaroaren 23an Bartzelonako EH Sona jaialdian parte hartuko du MICEk. Zuzenekoetan boskote formatuan arituko da, Baleztena eta Agirrez gain, Lutxo Neira eta Ibai Gogortza ere aldamenean dituela.



EKHI BELAR

## Amaierarik gabeko erorikoa

Nagusiei begira hazten gara, eurek egiten dutena aztertu eta kopiatuz, nahita edo nahi gabe. Pentsatzen nuen erabaki garrantzitsuak hartu beharko nituela bizitzaren une jakin batean eta erabaki horiek betirako izango zirela. Tontakeria ematen du, baina bizarrak edo bibotea utzi ala moztuta edukitzea, adibidez. Behin aukera eginda, pentsatzen nuen inoiz ez nuela itxura aldatuko. Bada, argi dago ezetz. Orain moztuta, gero bizarra eta bihar bibotea aitaren ereduari jarraituz. Arinkeriaz, inongo transzendentziarik gabe. Ezer ez da aldaezina eta betirako, eta oinarri sendoei ezin eusteak nolabaiteko sentsazio hutsa sortzen dit barrenean. Ametsetan amaierarik gabeko erorikoa duzunean bezala. Niretzat bi momentu goibel daude urtean. Bata, Sanjuanetako azken eguna da. Ez festa amaitzen delako, baizik eta udaren amaieraren hasiera markatzen duelako, atzerako kontaketa. Eta uda maite dut. Bestea, udazkeneko ordu aldaketa da. Iluntasunaren erreinuan murgiltzen gaituelako, itzaletako koloreak gailentzen diren sasoiari. Eta argitasuna maite dut. Abiatu gara ordutegi berriak zehaztutako bide ilunean, baina itzalpean daramatzagu hainbat aste, hilabete eta urte. Orainaldian ez da diktadurarik existitzen, iraganean bakarrik antzematen ditugu. Orainaldian lege eta ordenaren kontzeptuak darabilgu ahotan, baina etorkizunean nola ikusiko ditugu urte hauetan lege eta ordenaren izenean hartutako neurriak? Noizbait geratu beharko dugu amaierarik gabeko erorikoa.



Saritutako  
taldearen  
argazkia.  
Maialen  
Belaustegi

## Indalezio Ojanguren lehiaketako argazki erakusketa Portalean ikusgai hilaren 19ra arte

Aurreko asteko barixakuan inauguratu zuten Indalezio Ojanguren XXX. Argazki lehiaketan saritutako lanak eta beste hainbat argazki biltzen dituen erakusketa Portalean. Azaroaren 19ra arte egongo da ikustera joateko aukera, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era. Inaugurazioarekin batera Indalezio

Ojanguren XXX. Argazki lehiaketako irabazleei sariak banatzeko ekitaldia egin zuten antolatzaileek. Argazki-lehiaketako lanekin batera, areto berean bigarren erakusketa bat ikusteko aukera izango da, azaroaren 12ra arte: Jon Martinen eskutik tintaz marraztutako hainbat irudik osatzen duten "Tintaren ostera" izenburuko, hain zuzen ere.

## Unax Blancoren "Zuk" dokumentalaren estreinaldia



Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak urtero eskaintzen duen Zinexit zine-erakusketaren harira antolatutako Zinexit Topaketak ekimenaren barruan estreinatuko du Unax Blanco eibartarrak "Zuk" izenburuko dokumentala, datorren asteko eguean, 19:30ean, Bilboko Golem Azkuna Zentroan (sarrera dohainik). Lanak ordubeteko iraupena dauka eta krisi migratorio gisa izendatu duten hondamendiaren aurrean laguntza ematen diharduten boluntarioen inguruan osatu dute. Boluntario horien lan eta ahalegina dira lau istorio paraleloz osatutako dokumental honetako protagonistak. Dokumentalaren ondoren solasaldia antolatu dute dokumentalerako elkarrizketatu dituzten emakumeekin eta zuzendariarekin.

## I. Hizkelan jardunaldia hartuko du Armeria Eskolak azaroaren 8an

Euskaraz aritzeko konpromisoa hartu duten edo hartzea nahi duten enpresa, lantoki, elkarte, erakunde edo Lanbide Heziketako ikastetxeak batuko dira Armeria Eskolan datorren azaroaren 8an (eguztzena). Lanbide Heziketan ikas-materiala euskaratzeaz eta euskeraren sustatzeaz arduratzen den Laneki elkarteak esperientzietan oinarritutako egitarau zabala antolatu du, Armeria Eskolarekin elkarlean. Erakundeetako ordezkariak gain, Lanbide Heziketako ikastetxeetako eta Elay eta Kabia bezalako enpresetako ordezkariak ere izango dira. SD Eibar Funda-



ziokoek euren jardunean euskara bultzatzeko zer egiten ari diren azalduko dute, eta Joxe Mari Goenaga zinegilea bere lantaldean euskara nola ulertzen duten azaltzera etorriko da. Mintegia 9:00etan hasi eta 13:00etan, Mikel Laskurain aktoreak egingo duen laburpenaren ondoren, mokadutxo batekin, bukatuko da. Izena eman nahi dutenek oraindik badaukate horretarako aukera jakinbai.eus webgunean.





## Barixakua 3

### ZINE-FORUMA

**19:30.** *"La bicicleta verde"*. Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkoro. Pagatxak antolatuta. Sarrera librea. Portalean.

### DANTZA

**20:30.** *"Latente"* ikuskizuna (Paula Quintana Danza Cia). 10 euro (7 euro, Coliseoaren Lagunak). Coliseoan.

### ANTZERKI GAUA

**22:00.** *"Txabela Bragas"*, Nalua gazte feministen taldeak antolatuta (gaztetxea 21:00etan zabalduko dute). Eibarko gaztetxean.

## Zapatua 4

### TAILERRA

**10:30/13:30 eta 16:30/20:30.** Jabetze Eskolako Autodefentsa Feminista tailerra. Portaleko dantzalekuan.

### 1944-AN JAIOTAKOAK

**13:00.** Urte horretan jaiotakoak Arkupe tabernan elkartzea, zapiak banatzea eta piskolabisa.

**14:00.** Taldearen argazkia, Untzagan.

**15:00.** Bazkaria Unzaga Plaza hotolean.

### MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSA

**15:30.** *"155.aren kontra. Demokrazia eta Erabakitze Eskubidea"* goiburuari jarraituko dion Bilbokorako. Ego-Gainetik.

### MAGOSTO JAIA

**18:30/21:00.** Gaztaina erreak, txorizoa eta edariak. "As Burgas" Galiziako Etxeko "Os Galaicos" gaita-taldeak girotuta. Urkizun.

### ANTZERKIA

**20:30.** *"Viaje al fin de la noche"* (Proyecto 43-2). 10 euro (7 euro Coliseoaren Lagunak). Coliseoan.

## Domeka 5

### TAILERRA

**10:30/13:30 eta 16:30/20:30.** Jabetze Eskolako Autodefentsa Feminista tailerra. Portaleko dantzalekuan.

### MAGOSTO JAIA

**11:30/14:30.** Gaztaina erreak, txorizoa eta edariak, "As Burgas" Galiziako Etxekoen eskutik (11:30etik 12:30era umeei gaztainak doan). Urkizun.

## Astelehena 6

### SENDABELARREN FOROA

**16:00/18:00.** *"Lupulua eta Ginkgo biloba"*. Portalean.

### FILM LABURRAK

**20:00/21:30.** "Asier Errasti" 18. film laburren jaialdia. Lehiaketara aurkeztu diren lanen selekzioa. Coliseoan.

### MUSIKALDIA

**20:30.** 49. Tolosako Abesbatza lehiaketan parte hartuko duen *"Lautitia children's choir"* 40 neska osatutako abesbatza (Zuz: József Nemes). 3 euro. Coliseoan.

## Martitzena 7

### IKASTEN

**10:00.** *"Sextina kapera (I)"* hitzaldia, Ricardo Aldama Deustuko irakaslearen eskutik. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**16:00.** Punto-tailerra.  
**17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### HARIXA EMOTEN

**19:00.** Literatur tertulia, Kirmen Uriberen *"Elkarrekin esnatzeko ordua"* lanaren inguruan. Portalean.

### DOKUMENTAL-SOLASALDIA

**19:00.** Ordezkapen bidezko ernalketari buruz, Alternatibak antolatuta. Portalean.

### FILM LABURRAK

**20:00/21:30.** "Asier Errasti" 18. film laburren jaialdia. Lehiaketara aurkeztu diren lanen selekzioa. Coliseoan.

## Eguaztena 8

### JARDUNALDIA

**09:00/13:00.** II. Hizkelan Jardunaldia. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**09:41.** Ibilaldia: Urkiola-Otxandio. Bazkaria eraman. Trenaren irteera, Estaziñoan (09:43 Ardantzatik).

### GURASOAK MARTXAN

**18:00/20:00.** *"Teknologia berriak eta sare sozialak: harreman sanoak"* ikastaroa. Portalean.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### MUSIKA

**20:00.** Organo kontzertua, Gerardo Rifón-en eskutik. San Andres elizan.

### FILM LABURRAK

**20:00/21:30.** "Asier Errasti" 18. film laburren jaialdia. Lehiaketara aurkeztu diren lanen selekzioa. Coliseoan.

## Eguena 9

### JARDUNALDIA

**09:00.** *"Mugarriak, gure herriko historiaren lekuko mutu horiek"*. Udal Artxiboan.

### IKASTEN

**10:00.** *"Cómo ha cambiado la comunicación"* hitzaldia, Jose Luis Ibañez EHU-ko Medikuntza fakultateko irakasle-ohiaren eskutik. Armeria Eskolan.

### SAIOA

**17:00.** *"Tratu Onaz hitz egin dezagun"* saio irekia. Portaleko ikastaro gelan.

### ANTZERKIA

**18:00.** *"Rapsodas, S.A."* (La Red Teatro). Beheko Tokia jubilatuen etxean.

### KALEETAN KANTUZ

**18:00.** Dantza taldea. Untzagako jubilatuen etxean.  
**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### FILM LABURRAK

**20:00/21:30.** "Asier Errasti" 18. film laburren jaialdia. Lehiaketara aurkeztu diren lanen selekzioa. Coliseoan.

## Erakusketak

### Azaroaren 12ra arte:

– "TINTAREN OSTERA" JON MARTINEN MARRAZKIAK. (Portalea)

### Azaroaren 19ra arte:

– INDALEZIO OJANGUREN XXX. ARGAZKI LEHIKETAN SARITUTAKO LANEN ETA BESTE HAINBAR ARGAZKIREN ERAKUSKETA. (Portalea)

– ESTHER FERNANDEZ DE MARURIREN MARGO ERAKUSKETA. (Topalekua)

– AMAÑAKO JAI BATZORDEARI LAGUNTZEKO KAMISETA. (Untzagako Jubilatuen Etxea)



**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**




Zorionak, IRATI Zarraua, bixar 11 urte beteko dozuzelako. Jarraitu horren alai eta poliitta. Musu bat etxekuen partez.



Zorionak, KOLDO, hillaren 6xan 5 urte beteko dozuzelako. Amama, aitxitxa eta famelixa guztiaren partez. Maite zaittugu.



Zorionak, IMANOL Egidazu, martitzenian 12 urte egin zenduazena-eta. Besarkada haundi bat etxekuen partez, mundiala zara-eta.



Egunero irribarre bat etarutzen deskun BEÑATI, zorionak! 3 urtetxo! Famelixaren eta, batez be, Markelen partez zaku bete patxo.



Zorionak, HIART, bixar 6 urte beteko dozuzelako. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Ekain zure nebaren partez.



Zorionak, ELENE, bixar 6 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, BEÑAT eta amama MAITE, astelehenian eta martitzenian urtiak ospatuko dozuez-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ITSASO, haraiñegun 9 urte bete zenduazena-eta. Laztan haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ENEKO!!, atzo 2 urte egin zenduazelako. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ARIANE, gure printzesak domekan 8 urte beteko dittu-eta. Patxo erraldoi bat famelixaren partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**

**4an: 17:00, 19,45, 22:30**

**5ean: 17:00, 20:00 (Antzokian)**

**6an: 20:30**

**"El secreto de Marrowbone"**

Zuzendaria: Sergio G. Sanchez

**(2 ARETOAN)**

**4an: 22:30**

**5ean: 17:00, 20:00**

**"La llamada"**

Zuzendaria: Javier Calvo

**(1 ARETOAN)**

**5ean: 20:00**

**"La historia del amor"**

Zuzendaria: Radu Mihaileanu

**(ANTZOKIAN)**

**4an: 17:00 (2 Aretoan)**

**5ean: 17:00**

**"La Lego Ninjago"**

Zuzendaria: Charlie Bean (EUSKERAZ)



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 632-426847.
- Nire zortzi urteko umeak eta nik pisua behar dugu alokairuan Eibarren. Tel. 603-783176.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 688-899813.
- Pisia hartuko nuke Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 628-318570.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garajea salgai Bittor Sarasketa kalean. Tel. 615-761830.

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alogagai Asua Errekan. Bi solairukoa, bat biltegitako. Tel. 618-272914.
- Lokala alogagai, barrarekin, 18 urteko gorakoentzat. Tel. 600-890245.
- Lokala salgai edo alogagai J. Etxeberria kalean. 130 m<sup>2</sup>. Erabilera anitzeko egokia: biltegi, trasteroa... Tel. 647-525990.
- Garaje handia hartuko nuke Urkizumatsaria inguruan. Tel. 690-610740.
- Industria-pabilioia alogagai, garabiekin, Elgoibarko Olaso poligonon. 200 m<sup>2</sup> + 70 m<sup>2</sup> solairuarekin (7 metroko altuera). Tel. 649-258913.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 680-973549.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-043190.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko lokal, taberna edo pegoetan. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, supermerkatuan lan egiteko... Tel. 644-886835.
- Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko. Esperientziarekin. Tel. 631-018078.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-140115.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-206394.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientziarekin. Tel. 664-357381.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko: bulegoak, pisuak... Tel. 629-872270.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-718853.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-738823.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-395471.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka eta asteburuetan. Tel. 633-101852.
- Emakumea eskaintzen da egunez nagusiak zaintzeko. Tel. 622-162798.
- Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 632-733573.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 631-001083.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gaez, ospitalean eta asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 671-763558.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-814941.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 603-348090.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizean umeak prestatu eta eskolara eramateko. Tel. 688-628235.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 674-687863.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 690-223601.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-521520.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Arratsalde eta gaez. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 602-064084.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 688-818176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 688-899813.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 622-677230.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 678-185304.
- Neska eskaintzen da kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 675-965130.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 691-500787.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 637-322757.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642-986019.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 688-737757.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gaez eta asteburuetan Eibarren edo inguruetan. Tel. 652-532589.
- Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, dendarri moduan... Tel. 631-363056.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. Tel. 646-796401.
- Neska eskaintzen da lanerako: umeak zaindu, dendarri jardun... Tel. 632-454817.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-245626.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 666-834329.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-749329.

- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko goizez. Tel. 632-835745.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 633-401678.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 602-625718.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 642-986019.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-999079.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 603-750518.

## 4.2. Langile bila

- Pertsona behar da umea zaintzeko. Tel. 605-693147.
- Kamareroa behar da Eibarren. Esperientziarekin barran eta jangelan. Tel. 669-713033. Bidali curriculum: jaciebelm@gmail.com
- Dendariak behar dira janari-denda batean lan egiteko. Jornada erdiz. Bidali curriculum Eibarko 16 postakutxara.
- Eibarko Laukolan SL enpresak proiektuak garatzeko programatzailea behar du. .NET eta .SQL jakitea ezinbestekoa. Bidali curriculum: lkl@laukolan.com
- Estetizista behar da Eibarren. Tel. 657-793584
- Kamarera behar da Tiro Pichon jatetxerako. Tel. 656-752658.
- Eibarko instalazio elektriko enpresa batek elektrizitate-ofizialak eta -peoiak behar ditu. Deitu bulego orduetan. Tel. 686-210796.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

- DBH 3. mailako Matematikak eta Fisika klase partikularrek emateko irakaslea behar da. Tel. 669-293462.

### 5.2. Eskaintzak

- Klase partikularrek ematen dituzte. DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloak. Talde txikiak. Tel. 685-739709.
- LH eta DBHko klase partikularrek ematen dira. Maila guztiak. Deitu 16:00etatik aurrera. Tel. 663-779231. Asier.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Binilozko diskoak eta singleak erosten dituzte. Tel. 688-624326.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus



## Logopedak

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
----- (Ume eta helduendako) -----  
**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**Berba**  
Logopedia  
AIDA CORTA ANTÓN

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. ANTI)  
Mobila: 622-629-544  
logopeda@berba.es

## Okulistak

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
[www.oftalberdi.com](http://www.oftalberdi.com)

San Juan 11 - solairuartera  
943 20 19 82

**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

· Miopia ebakuntzak  
(femtosegundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)

## Psikoterapia

**FUB** PSIQUIATRIA  
PSICOTERAPIA  
ALFA EIBAR

RPS: 32/17

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

**Medikuntza Psikiatrikoa**

Ego Gain, 18 - 1 A  
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)  
94 416 49 06

[furizar1@yahoo.com](mailto:furizar1@yahoo.com)

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

**ELENA AIZPUN**  
PODOLOGOIA  
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
943 12 14 93 / 696 555 208

**PODOLOGOIA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943 799746

**PODOLOGOIA**

Maidar Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO**  
T. ORTOPEIDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
[www.centroamets.com](http://www.centroamets.com)

**Coro Ortíz de Urbina**  
PSIKOLOGOIA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

**Maialen Hernandez**  
PSIKOPEDAGOGOIA

- Lengoia trastornoak
- Hiperaktibitatea
- Gizartrate arazoak
- Autoestima arazoak
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA  
HELDUENTZAKO  
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
[www.arratepsicoterapia.com](http://www.arratepsicoterapia.com)

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOIA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. .... EIBAR  
Zuberoa, 4 ..... ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

**Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22  
[moreno\\_iciar@yahoo.es](mailto:moreno_iciar@yahoo.es)

**Itziar Moreno**  
PSIKOLOGOIA  
KOLEG. ZKIA. 1947

**GIZENTASUNA  
ANTSIETATEA  
AUTOESTIMA  
ARAZOAK**

943 12 02 00  
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO  
DORRETTAN

centro médico eibar



# Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure  
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure  
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar  
[www.bistaeder.es](http://www.bistaeder.es)